

# Zeruko ARGIA




IDAZKOLA TA BANAKOLA: OKENDO, 22 - SAN SEBASTIAN - TEL. 426666 - PREZIOA 7 PEZETA

## SANTO TOMAS LIZEOA

### Euskal giroan batxillerra bukatu arte

### Joxe Mari Enparantza eta Karmele Alzuetarekin solasean



Market, Unzurrunzaga eta Zulaika jaunek tajututako Santo Tomas Lizeoa.

NON ZER	
● BURGES AUERRERAKOI BATI	
Aranegi ... ..	3 garrenean
● GAUR ETA HEMEN	
Rekondo ... ..	3 garrenean
● FEUDAL EGITURAK GAURREGUNGO	
INPERIALISMOAN	
Ansola ... ..	5 garrenean
● ZINE	
Unanue ... ..	6 garrenean
● ARTE	
Kortadi ... ..	7 garrenean
● HAURTZOAK JAI O BERRITAN BATAIATU	
BAI ALA EZ?	
Amunsa ... ..	11 garrenean

Donostiara Antigua aldetik sar-tzen zentralik ikastetxe sail bat ikusiko duzu ezkerretarat. Denen gainetik etxe gorrixka bat ikusiko duzu: DONOSTIAKO SANTO TOMAS LIZEOA. Erabat euskeraz ikasten dira batxiller arteko ikasgaiak. Ahal den euskal giroan haundien batxillerrekoak ere. Txikitzen baina gehiago mintzatzen dira hazitakoan ikasleak euskeraz. Loistarain elkarteak da etxearen jabe eta Joxe Mari Enparantza du elkarteak lehendakari. Mari Karmelen Alzuetak da, berriz, lizeo-ikastetxearen zuzendari. Biokin dugu gaurko solasaldia.

—Hor daukagu Lizeo berria. Perretxiku antzera bat-batean ikusi dugu jaiotzen. Zenbat denbora eta zenbat diru kostatu da?

—Zuk badakizu "perretxiku antzera" ez dela ezer jaiotzen hemen, perretxikuak izan ezik, eta haiek ere batzutan bakarrik; baiña eman dezagun gure Lizeo hau hala jaiotzen. Joan zen urtean irail-hean hasi eta aurten iraillean bukatu, edo klaseak hasteko gertu behintzat. Bai, etxagintzan parte hartu duten guztiak bizkor eta arin ibilli dira, eta gure programa pentsatu genuen bezala bete ahal izan dugu.

Diru kontuan ere, pentsatu zena gertatu da: 25.000.000 kostatu da etxea. Dirutza horri erantzuteko, jakina, Aurrezki Kutxa Munizipalak eta Probintzialak laguntza handia eman dute. 23.000.000 kreditoa ateratu dugu lurraren eta etxearen gainean. Hori izan ez balitz ez zegoen pentsatu ere egiterik. Beraz gure eskerrik bihoztienak eman beharrean gaude bi Aurrezki Kutxa: hoiri.

—Lan asko egin beharra tokatu aiz zaizue Loistaraindarroi Lizeo hau hain azkar altxatzeko?

—Bai, lana bai. Lehenik, proiektua bukatu arte, gure gorabeherak ez sira motzak izan. Lege berria sortu zitzaizun eta orduko nahaspila ez zen nolana hain zuzen; bai-

ña bukatu gure proiektua eta lortu ziran Ayuntamentuko baimen guztiak. Egia esan, Ayuntamentuak bere baimenak usu eta fite eman zizkigun eta hori eskertzekoa da. Gero konkursa txiki bat egin zan etxagille batzuen artean eta aurrera. Eta urte osoan begirik kendu gabe han ibilli gera, eta iritxi dugu nahi gennena.

—Nolaz, ez ardura, zer gogo, zer indar behar izan dituzue etxe haundi hori zutik jartzeko?

—Galdera garrantzitsua benetan hauxe. Bagenekien haseratik zama haundia hartzen genuela eta koska asko izango genuela bidean. Ez zen bakarrik etxe berria egiteak berak zekarren tekniko nahiz diru arazoa. Hortaz gainera ikaskintza osoan eraberritzeari erantzun behar genion, eta horrekin batera ikasleen ugaltzeari. Horrek irakasle ugaltzea zekarren berarekin, eta irakasleek tituluak behar zituzten eta eskas genuden. Seguruak ere soluzio eske zeuden. Haurren kuantak gaurkotu behar ziran. Legalizazio kontua ez zitekeen utz. Hortaz gainera, jende asko eta tankera askotakoa gabiltzan gero barnean, buruak eta bihotzak elkartu beharra zegoen. Gizarteko lan guztietan bezalaxe, guk ere gure gorabeherak baditugu gure artean. Eta gainera gainerakoak...

Gaur esan dezakegu pazientzia eta kontu haundiz ibilliaz eta kemenari etsiaz, gure asmoak bete ditugula; baiña gure inguruan hartan edo hontan ari diren guzietan esan nahi diegu, gure lan hau ez dela kolpe batean egin daitekeena. Honek ordu asko eskatzen duela eta ez dagoela etsitze-rik. Gaizki esate txolin batean ari-zea dela erraxena, lan egitea bai-ñe askoz erraxagoa. Askotan ez dela nahikoa ere borondate ona bakarrik. Hortaz gainera, ongi egokitutako lan bat eskatzen duela euskara aurrera ateratzeko, elkarrekin egin beharrezko lana, eta hortarako askotan norik bere nahiak alde batera uztea eskatzen

duela eta denok ari dugun lanari dagokionez jardutea norbera.

—Emaizkiguzu dato batzu: Zer leku, zenbat gela eta zer instalazio dituen Lizeoak.

—33.000 metro koadroren jabe da Loistarain S.A., eta oraindik ere iri-ki denak 8.000 metro hartzen ditu hortxe-hortxe. Eraiki den hau, basikako haurrentzat da. 960 haurrentzat du lekua, eta legeak eskatzen duen bezala, 22 zatitan banatuta dago. Etxeak, 4.000 metro koadro paseak hartzen ditu. Lau mila metrotako aterpe hortan sartzen dira, 22 gela hoietaz gainera, hoietaz dagozkie zerbiztu guztiak, eta gainera zuzendaritzaren gelak, sekretaria, gimnasioa, laboratorioak, "usos múltiples" izeneko gela haundia, sukaldia, etxezainaren bizitza, biblioteka... Guzi hau neurri haunditakoa da, etxea hazitzen danerako ere balio dezakeen moduko, laster baitatuz batxiller berrirako eta profesional eskolarako beharko duten etxalde berriak ere. Eginik dagoenaren inguruan, berriz, jolas-tokiak dauzkagu: frontoi haundi bat, balonzestorako bi kanpo, balonbolearako bat, saltorako eta korrikarako lekua, eta beste aterpe batzuk. Autoak uzteko zelai eder bat ere badugu.

—Eta hori guztiak egin eta gero, zorrik ba al duzue?

—Hori ez dago galdegin beharrik, nahizta gure zorra Aurrezki Kutxetikoa bakarrik izan esateko. Ta hori ez da gutxi.

—Jendeak dezakeen beste lagundu duela uste al duzu, gauzari duen inportantzia emanaz?

—Ez gure ustez. Ez du behar beste lagundu. Askoz gehiago egin dezakeela uste dugu eta hau behin eta berriz esango dugu. Ez nuke esango behar hainbat kezka sartu diogunik ere jendeari emen ari geran hontaz. Guk uste dugu bakoitzarekiko egiten den lana dela emankorra; baiña ez dugu galdutako nahi guztietan egiteko daukagun egokiera hau ere. Badakigu

bihozkada bat besterik ez direla izaten askotan horrelako unetan egiten diren deiak eta usu itzal-tzen direla; baiña ala ere... Orain-goz 600 sozio bakarrik gera eta hori oso gutxi iruditzen zaigu. ZERUKO ARGIA-ri ere eskatuko genioke aldiz-aldiz gure gauzak jakin-erazteko eta hoiere berri emateko. Ganza asko da jakinerazi beharrezkorik.

—Gogoan izango dugula zeure eskabidea agintzen dizut. Eta orain bukatzeko, gaur ikusten dugunarekin bukatu al duzue etxagintza, ala haunditzeko asmoak badira?

—Oraindik ere egin dena, ez da lehen pausoa besterik, eta hori ere Batxiller berrirako eta Profesional eskolarako beharko direnekin osatuko. Hauek orain honen segida izango dira. Hortaz gainera bada asmoa Loistarainen lurretan beste ikastetxe bat basikarako egiteko, ikastola batzuk alkartuta. "Joxe Miel Barandiaran" izango luke izena. Geroagorako pentsaturik dago guraso eta semealabentzat kultural-leku bat egitea ere, ta horrekin batera botanika-baratze bat. Hortarako lehen landareak sarturik daude.

Beraz lana erruz daukagu; baiña hori guztiak egin nahi dugu, eta lehen bai lehen egin ere.

—OOO—

Etxagilleek esan digute berena. Ikusi dugu nolako lana egin duten eta zer asmo dituzten. Bai egiña eta bai egiteko, izugarriko lanak iruditzen zaizkigu eta gure eskerrik beroena zor diegula esango genduke gizon hoiere; baiña jakin dugu zer behar dauzkaten eta gure esker ona ez dedilla hitzekoa bakarrik izan, egintzazkoa izan dedilla batez ere.

Baiña Lizeoa ez da etxe bat bakarrik. Ikastetxe bat da. Hor dau- de barnean 865en bat haur eta hoiere eskatzen dituzten hainbat eta hainbat irakasle. Hauek ere izango dute zerbait esatekorik ZERUKO ARGIA-ren irakurleentzat, eta gal- degiegun.

—Mari Karmen —Mari Karmen Alzuetak bertako zuzendaria da—, zein da zure sentimendurik biziena ikastetxe eder eta berri hontan?

—Erantzukizuna. Zuk ongi dakizu bezala, etxe hau ahalegin asko eta askoren fruitu da eta ilusio askoren lore maitea. Eta hainbat eta hainbat kostatutako eta maitatutako zerbait danez gero, bildur ematen dit ez ote diogun behar bezala erantzun gure jendeak hortan jarririk duen itxaropenari. Hori de nere sendimendu eta lehen kezka etxe berri hau estraiñatzean. Horregatik, guztiei guk ere laguntza esakatzen diegu. Batez ere, borondate onezko laguntza.

—Ederki Mari Karmen. Gogoan izango dugu hori ere. Eta orain, konkreta ote dezakezu orain-orain-goz Lizeoan eskuartearen daukagun arazo berezirekin bat?

—Nahi baduzu, legalizazio kontua da orain eskuartearen daukagun eginbehar garrantzizko eta utziezi-ñezkoa. Paper guztiak bialdi ditugu eta gure ustez aurtengo kursoan iritxiko dugu. Basika lehendik legalizatua dagoela badakizu. Aurten batxillerra legalizatzen badugu, pauso haundi bat emanik dukegu.

—Gogorak gera euskal aldeko gauzak maxiatzen. Badirudi zutitzen ari diren euskal landareak lurrera bota arteko onik ez dugula edo norik dakizu, guk bezain ongi, zergatik duen arrisku hori. Denok gaude hortaz kezkatutik, Loista- raingoak, gurasoak, irakasleak. Eta hori gerta ez dadin sortua dugu hortaz arduratuko den BATZOR- DEA. Dirurik ezagatik inor Lizeo- ra etorri gabe gerta ez dadin, ale- ga.

—Ez dakit hala den. Ez gendu- ke hala izaterik nahi. Ez gure erruz baina badu hortarako arris- kua. Zuk dakizu, guk bezain ongi, zergatik duen arrisku hori. Denok gaude hortaz kezkatutik, Loista- raingoak, gurasoak, irakasleak. Eta hori gerta ez dadin sortua dugu hortaz arduratuko den BATZOR- DEA. Dirurik ezagatik inor Lizeo- ra etorri gabe gerta ez dadin, ale- ga.

ERRIALDE

# NERE BORDATXOTIK

## “AGITEK” IRABAZI

Enkarguz ere ezin egin denbera oberik. San Martinetan ez, baiña maiatz erdian ote geunden esan zitekean.

Sarrera aundia, ikaragarria, guk uste bezeiaxe. Jendeak ezin obeto erantzun, eta joandako iñori etzizaion damutu. Aparteko jokoa ikusi genduen; oso gutxi izaten diran bezelakoa.

“Agite” ta “Urreta” alkarren-tzat egiñak dirala esan ditek. Ain da alde utsa batetik bestera dagoena!

“Agitek” irabazi bazuen ere, izan zan bolara bat, “Urreta” aurretik ibili zana, ta lanak lenengo bukatuko zituela zirudiena.

Neurketa asi baiño bost minutu aurreragotik, “eun berrogeitamarr”, egon zan dirua irabazlearen alde. Gero ziran an kontuak!

Egurak ziran oso desberdina. Kana-erdiko batzuk or nunbait; legezkoak esateko modukoak.

Oinbiko enbor aundiak, zein baiño zein txarrago ta trake-sago. Lenengo “Urreta” ebaki zuena, batez ere. Zer zan ura, jaunak! Korajea bear zan ura erdibitzeko.

Zeuek ikusiko dezute ederki, epai bakoitzaren denborak irakurtzerakoan. Atsedetik etzuten artu ezertarako. Ezta bururik jaso ere. Jo ta jo, denbora guztian, errukirik gabe.

Aiek mutillak! Orri esaten zaio ondo zailduta egotea; orri esaten zaio egitazko deportegizonak izatea.

Jesus Olaizola “Agite”, ogeitalau urteko mutiko zimur, liraiña da. Pixua: 76 kilo. Bizi amorratua, nerbio utsa.

Erakuslea: Esteban Saralegi, leitzarra. Botilleroa: Migel Iturrarte, erri berekoa.

Era ontan izan zan bere jar-duera:

Lenengoa, kana-erdikoa, 1-58 (minutu bat eta berrogeitemezortzi segundoa).

Bigarra, kana-erdikoa, 4-10. Irugarrena, kana-erdikoa, 6-43.

Laugarrena, oinbikoa, 15-08. Bosgarrena, kana-erdikoa, 17-40.

Seigarrena, kana-erdikoa, 21-45. Zazpigarrena, kana-erdikoa, 24-23.

Zortzigarrena, oinbikoa, 34-48. Bederatzigarrena, kana-erdikoa, 37-14.

Amargarrena, kana-erdikoa, 39-46. Amaikagarrena, kana-erdikoa, 42-16.

Amabigarrena, kana-erdikoa, 45-50 ta 3 kintoan.

Or ikusten da garbi oinbikoak ebaten zer denbora bear izan zuen. Atera kontu nolakoak izango ziran. Eta... goazen orain “Urreta” lana aztertera:

Lenengoa, kana-erdikoa, 1-50. Bigarra, kana-erdikoa, 3-50. Irugarrena, oinbikoa, 14-00. Laugarrena, kana-erdikoa, 16-40.

Bosgarrena, kana-erdikoa, 19-05. Seigarrena, kana-erdikoa, 22-Zazpigarrena, oinbikoa, 30-15. 10.

Zortzigarrena, kana-erdikoa, 33-15. Bederatzigarrena, kana-erdikoa, 36-50.

Amargarrena, kana-erdikoa, 39-40. Amaika garrena, kana-erdikoa, 44-20.

Amabigarrena, kana-erdikoa, 48-15. “Urreta”ren erakuslea: Kristobal Lazkano, naparra. Botilleroa: Juan Maria Gorrotxategi.

Irabazleak 50 minutuan lanak bukatu baietz eta ezetz jokatu zan diru pixka bat. Gal-tzailleak ere lenagotik ebaki zituen. Lana egin zuten latz eta kupira gabe. Etzuen merezi bietako iñork galtzerik.

Juan Alberdi “Urreta”ren adin edo edadea: 27 urte. Pixua: 80 kilo. Federazioko gizonak: Artola ta Egibar jaunak. Jende dana zorutzen irten zan plazaik. Zein baiño zein dira bi azpeitiarrak.

Ikuskizun gogoangarria an gñanontzat. Etzaigu nolana az-tuko.


Ez arranetan!

## BIXITA BAT

Ostegun arratsaldea zan; azaroaren bederatzia. Mendizabal bigarrenaren bixita izan genduen.

Gure eginkizuna danez, galdera batzuk egin genizkion, eta bai prestu asko ark erantzun ere.

Aukeran —esan zigun— denbora gutxitxo artu nuen jokoa egiterakoan. Bi illabeteko tar-tea izan banu askoz obe zan neretzat.



«URRETA»

Alare, pozik eta gustora nagoa aitortu bear. Ezeren okerririk eztedala, izendatutako egunean jokatzeko aleginduko naiz.

Oraintxe amabost egun etxeratu zuen arri berria. Zumarraga’ko arrobi batetik aterea da ta Bergara’n egiña. Eztago esan bearrik lendik ere bazeukala pixu berdiñeko arri zar bat.

Bearko, entrenamentuak egin-go bazituen!

Nere bixitak —jarraitu zuen esanaz— badu beste elburu bat ere.

Zein plazetan jokatuiko gñan erabaki gabea gendukan, eta



«AGITE»

orain badakigu. Azpeiti’ko zezen plaza aukeratu degu gure norgeiagorako.

Dakizutenez, irakurle maiteok, abenduaren zortzian izango da neurketa au, esandako tokian.

Zortziña minutuko iruna tанда egingo dituzte “Endañeta”k eta Mendizabal bigarrenak.

Tandaba t bukatzetik bestea astera, zazpi minutuko tar-tea izango da.

Beste zerbait ere adierazi zigun Mendizabal gazteak. Alegia, azken orduan modu txarrean sarrera ondoren jendea ibili eztedin, onoko ostatu a-etaan egongo dira txartelak sal-gai, azaroan ogeitik aurrera:

Azpeiti’n: Bar Pastorkoan. Donosti’n: Bar Urola’n. Zizurkil’en: Bar Pesus’nean. Zumaia’n: Bar Uzkundun’en.

Plaza barruan sillak jartzeko asmoa dute. Sillak berrogeiña duro kostako dira.

Gaiñontzeko sarrerak danentzat berdin: ogeitamarna duro. Mendizabal Zizurkil’go Pesus’nean bizi da aspalditxoan; an jaten du. Lotara amaren etxera joaten da, ta ama Billa-bona’n bizi da. Bide motx eta laburra dauka, beraz, toki batetik bestera.

Onoko au geitu zuen arrija-sotzailleak:

“Jakin det Aretxa lenengoak Bilbao’ko periodikoetan zer aitormen edo deklarazio egin di-tuen.

Ari aurpegi ematen ausartzen ez ote naizen, alegia. Kargajasotzaille bati eman litekean aukerarik ederrena emango diot Aretxa’ri.

Berak aukeratu dezala nai duen arri klasea, ta pixua ere bai, ta jokatuiko diot.

Geiago eztago esaterik eta eskeintzerik, noski.

“Endañeta”rekin” jokatzeko den egun berean, abenduaren zortzian, arratsaldeko ordubietatik iruetara, Azpeiti’ko Bar Pastorkoan aurkituko nau Aretxa’k.

Berrogeiña milla duro jokatu-ko genituzke, baiña egun ar-tan ogei milla durorekin etorri dedilla, jokoa erdia botatzera”.

Guk bete degu geure egite-koa. Ortik aurrera zeuek kon-pondu.

**BASARRI**

# BERTSO BERRIAK

— 1 —

Zer tristea dan, Jaunak, gizona zartzea, Irurogei urtetan barrena sartzea. Ezifaren mendean derriort jartzea, berriro ume baten itxura artzea... Orduan ikasten da zer dan baztarteza!!!

— 2 —

Zein azkar juaten dan gazteak duana, Barrengo bizi-poza ta jolas afana. Tristura biurtzen da zartzaroan dana. Ta au ez da neronek asmatu dedana, bai zi agure bati entzun diodana.

— 3 —

Gazte txoroentzako orra, abixua: Danak sinistutzea ez da prexixua. Esperientzi duna daukagu maixua, onela mintzatu zait agure gaixua... «Zuk ez dakizu zer dan urtien pixua».

— 4 —

Esan liteke atzo umea nintzala, ta gaur ezin det jaso urtien itzala. Mundu au zer dan ongi kontura gaitzala, zeinek pentsatu du ola gabiltzala, bizitza ain xeibre pasatuzen dala...?

— 5 —

Amalau urterekin tailer baten asi, bertan bizitza dana igaroz kasi. Izerdi ta nekea alkarrekin nasi, an sufritzea zer zan genduan ikasi. Gure denboran etzan gaur aña fantasi.

— 6 —

Erromeri ta festak nunbait aitatzean, juergarako ez gñan gelditzen atzean. Dantza ta lekaioka zoroen antzean. Ai! urte eder aiek orain oroitzean, zer tristura sentitzen dedan biotzean!!!

— 7 —

Lan astoetan lertzen sasoi onenian, gero señalaten da gorputz barrenian. Orrela gertatuzten zaigu geienian, erretirua eman azken azkenian, dibertitzeko kapaz ez geradenian.

— 8 —

Gorputzean keja ta miña ikusterik, orrelakorik ez da pentsatzen gazterik. Esan gabe ez dago auxe sinisterik, len osasunez eta indarrez beterik, eta orain ez daukat ajea besterik.

— 9 —

Arpegi legunean azala ximurtu, gorraizea galanta ta bista laburtu. Katarroa ugari, ez-tala samurtu, neguko otzarekin ziara bildurtu... Ala ere mundu au ez dut nai agurtu!

— 10 —

Ankak pixutu eta burua arindu, gure gorputzak beti nunbaiten min du. Zer egin bear degun besteak agindu, ta gazteak serbitzen bear alegindu. Nai ez badegu ere guriak egindu!!!

— 11 —

Neronen kontsejurik ez nua jartzera, baizik entzundakoa onuntz ekartzera. Zer egin bear duan gizonak zartzara...? Xar baten kontsejua nijoa artzera, adituta bakarrik alaituko zera.

— 12 —

Xar orren kontsejua nai dizutet jarri: «Lendabizi lanari ar zaiozu neurri, gero mokau goxoak artu sarri sarri, Disgustorik etxera ezazu ekarri, ta zartzaroa egin liteke pozgarri».

— 13 —

«Astean aste egin eta jaietan jai, Ai dan apurra beintzat igaroz alai. Ez beti triste bizi eriotzaren zai, eskatu gabe ere etorriko da bai... Au txarra dala baiña denok ementxe nai»!!!

— 14 —

Emen amaituzten sasoi urrezkoa, indarrak juatea gauza bidezkoa. Zartzaroa geienok derriortzkoa. Saia gaitzen bada, emanik eskua, alkarri egiteko zorionezkoa!!!

«IAZPEK»

MUEBLES

## URRETAVIZCAYA

1929'an sortutako etxea

ERREDIZAK - EDERGALLUAK

EGIN - GAIK eta AURRE - KONTUAK

POSTAS, 46

GAZTEIZ (Vitoria)

## ATE OPARIAK

JATONTZI TA MAI - TRESNAK

Victor Pradera, 2  
Urrutizkifia: 425760

DONOSTI



**YOGUR**  
**GURELESA**  
**GOGOZKOENA**



# ERRIAK DU ITZA

Zorioneko dirua da, besteak beste, ikastolek duten arazorik latzenetakoa. Eta honek azkenean ikastolak zera bihurtzeko arriskua du, klasista, alegia. Arriskuzko itz baldarra sartu dut. Ikastolei buruz arinegi esan ohi den itza. Ikastolak aurrera ateratzeko gogoz baino suntsitzeko asmo gehiagoz ahoskatu diteketeen itza.

Baina ager dezadan zer esan nahi duan. Ez dugu uste aberatsen eta langileen arteko umeak bereizten asteko arriskua dutenik gure ikastolek, garai bateko zenbait monja eta fraile ikastetxe bezala.

Ez dugu uste dirudunek dirua or jartzeko asmoa izango dutenik ere. Diruak badaki ongi asko umeak non egin. Aurrez miatuak dauzka zulo guztiak. Amaiak joko luke soro hortara altxor bila, irakaskintzak dirua emango balu. Baina alderantziz da. Hortxe dago ain zuzen diru-poltsak duen jarioetako bat.

Hortarako arrisku gehiago du irakaskintzak berak. Denok dakigu nola eratua dagoen gure gizarte hau. Eta irakaskintza, dauden maila eta desberdintasunei eusteko eran eman nahi izaten dute gizarteko zuzendariek. Badu arrisku hau ikastolak ere. Baina beste ikastetxe guztiak ere gehiago. Eta hontan azkeneko muturreraino ez badugu jasotzen ere beste ikastetxeek lantzen ez dituzten alderdi asko lantzen ditu ikastolak.

Ikastolak ematen dituen beste alderdi hoiek maite baditugu ez dezakegu, egin dugun guztia galtzeko arriskuan jar, gauzak goizetik gauera aldatu nahi ditugulako. Ez dakar inorentzat ezeren onik batpateko istilu eta zirtizartakoak. Etengabe, eguneroko eta ordueroko lan isil, luze eta neketsuari ekin eta jarraitu behar zaio.

Aurrena irakasleek berek jantzi behar dute ondo baino obeto euskeraz, eskal kulturaz, pedagogia eta abarrez. Ez du andereñoaren lanak ikastolako orduekin amaitu behar. Irakurri eta ikasi egin behar du, bakarrik eta taldean. Aldi berean gurasoekin egin behar dute lan. Biak egiten dituzte beste ikastetxeetakoak baino gehiago, noski. Baina bada oraindik hortaz zereginik. Askoz ere gehiago egin behar da.

Klasista arriskurik aundiena, diru laguntzarik ez izatekiko dator. Diru asko behar da ikastetxe bat aurrera ateratzeko. Diru hori guztia aurrei ordain arazi beharretik dator, beraz, klasista arriskua. Garestiegi joko lioke zenbait guratori aurra horrenbeste ordaindu beharrik. Besterik gabe egiaz ezin duen zenbaitentzat ateak itxirik geratuko lirake.

Horregatik ezarri dut asieran: **ERRIAK DU ITZA**. Ikastolak erriarenak eta erriarentzat badira, erri-diruak aurrera ateratzeko behar ditu. Laguntzaileak ugaldun, jaialdiak eta zozketak egin, Aurrezki Kutxa, Udaletxe eta lantegiak jo, denetik egin behar da. Baina ez da aski hoiek ondo miaztea. Beka batzuk sortzera jo behar litzake. Ikastolari askatasunik kenduko ez dioten bekak biltzera.

Bostehunen bat mila bizilagun omen ditu Gipuzkoak. Bakoitzak ogei duro emanaz, berrogeita hamar milioi pezeta lirake. Eta hori zer litzake, ba? Txuleta jan bat, futbol edo pilota partiduko sarrera bat, amar zigarro pakete, lau farias...

Badakigu Gipuzkoan bizi garen guztiok ez gaudela hortarako. Baina itza eta pitsa dariola dabilen jende guztia hortaratuko balitz! Gure arazoari orpo-orpotik elduko bagenio!

Ezin dutenentzat, dezakegun guztia ematen ez dugun bitartean, ez dezagun klasista direnik esan. Gure esku dago ez izatea. Sor. ditzagun laguntzak. **ERRIAK DU ITZA**.

# BURGES AURRERAKOI BATI

## - ESKUTITZ IREKIA -

Sendagile, lege-gizon, ekonomilari, E.S.T.E-ko lizentziatu, lantegiko teknikari edo honelako zerbaiz izan zitezke, Zu.

Ni, berriz, nor naizen? Berehalaxe esango dizut. Berrogei urte ditut. Ezkondua naiz. Hiru seme-alabaren aita. Zaharrena hamabi urtekoa. Gazteena seikoa. Astearen berrogeita hamalau ordu sartzen ditut lanean. Hogeita hamar nere emazteak. Honi hillean behin ordaintzen diote. Astero neri.

Neure jaiotetxean bizi naiz. Aspaldiko maizterra nauzu. Uskeria ordaintzen dut errenta. Ez atezainik, ez aszensorenik eta ez berogarririk dugu etxean eta extapean. Neronek konpondutako bigarren esku «seiscientos» daukat. Ikasten hamalau urte arte jardun nuen. Hortik aurrekoa bizitzak eta eskarmenak irakatsi didate.

Ikastolara bidaltzen ditut neure haurrak. Nere eta emaztearen irabazki ikusiz gero, diru asko kentzen dit umeak ikastolara igortzeak.

Goxo zait «Martel» bat. Irakurtzea gogozko. Ahal dezakedan guztia irakurtzen dut. Badakizu nor naizen. Ez dakizuna zera da, zergatik idazten dizudan.

Uste ez nuen dirua gastearazi zenidan lehengoan. Etxeko norbaitek ondorearen bat dugunean Anbulatoria, S.O.E.ko sendagileetara jo ohi dugu. Baina gure umea ez zen hobeto jartzen. Nere konturako sendagilearengana eramane nuen orduan. Egon-gelan zai egon behar izan nuen, Aldizkari bat irakurri nuen. Ez zen txarra, arranopola.

Urtearen azkenetan gaude. Baditugu gorabeherak lantegian. Asmatuko duzu noski, zertzuk ditezken. Lege-gizonarengana jo genduan. Hemen ere itxogin beharra. Lehengo aldizkaria bistan. Berrito irakurri nuen. Azkenean erosi egin dut.

Horregatik idazten dizut. Gagokarri zait zuen mundua. Lan eta burroka egiten dit. Neure inguruko egoeraz arduratzen naiz eta hau aldatzen saiatzen. Irakurri dut zuen

aldizkaria. Aurrerakoi azaltzen da. Baina gureaz oso desberdina da. Zuei edari oso onak eskeintzen dizkizue: 9 orrialde. Auto berriez hitz egiten dizue: 9 orrialde. Guk ezin erosi dezakegun kolonia eta edergarriak eskeintzen dizkizue: 4 orrialde. Jantzi onez jantzen erakusten dizue: 9 orrialde. Banka-etxeak ikustera joateko adierazten dizue: 3 orrialde.

Guretzat egindakoetan berriz, diru-eratzasun handiz erosi ditezkeen etxeetaz hitz egiten zaigu. Moduz dauden tresiloek. Merke erosi ditezkeen jantzi eta garbigailuek.

Ez, ez naiz zuenaren gose. Baina zuen lotsarik ezak sutzen nau. Aurrerakoi bezala agertzen zerate eta izan ere hala zerate hitzez. Bizitzako gorabehera askotan topo egin dut ikasle edo profesional berri aurrerakoiek. Orain ia ez ditut ikusi ere egiten.

Haiek gastaleku batzutan eta ni bestetan ibiltzen gara. Ni ez neiteke haletara joan. Patrikak ez dit agintzen.

Baina zuen faltsukeriak eta lotsarik ezak sutzen nau, zuen hitz-jario hutsezko aurrerakoikeriak, zuen demagogiak. Zuek ez zaituet kaleko zurrubiloan ikusten. Zuen aurrekoek bazuten morroien emaztekin oheratzeko eskubidea. Beren sasikumeentzat umezurtzeak jasoz isildu zuten ondorengoek barruko harra. Gerorago, batera eta bestera, joan beharra izaten zuten maitaioak poztzera.

Zuek ere berdinak zerate. Garbi nahi duzue barrua. Har gaiztorik gabe. Eta emakumearen askatzea asmatu duzue. Eta zuen emaztea aske izan dadin lanera doa, baina honen orde, neskaumea daukazue etxean.

Ez naiz moroen jatorriko. Emakumearen askatasunaren alde nago eta dihardut. Baina zuek ez zaituet tartean ikusi nahi. Bakan batzuk jatorrak zerate. Baina gehienok ez. Aurrerakoi ezaltzen zerate. Horrek ondo ematen du. Zuen barruko harra isil dadin itxura besterik ez duzue egiten.

Debalde edo duan den irakaskintzaren alde zaudete. Zatozte neregana ni ere hala nagota. Hiru txartel ordaintzen ditut hillaren azkenean. Zuentzat ez da ezer. Asko neretzat. Atximurka haundiegia neretzat, noski.

Dirubide ikaragarria dela, ikastetxe bat jartzea, esanaz zabiltzate. Nik neuk haxe bakarrik dakit. Ez daudela lo zuei edariak, autoak, edergarriak eta abar eskeintzen dizkizuten Banka-etxe eta dirudunak. Diruak begi argia du. Diruak lantegiak, ostatuak, dantza eta festalekuak sortu ditu. Inoiz baita heritegi eta zerraldotegiak ere. Baina behin ere ez ikastetxerik. Dirubide on eta mauka haundi izan balitz landuko eta aitzurtuko zutekeen dirudunek lo egon gabe landa hori.

Horregatik sutzen nau zuen hitz-jario merke eta faltsu horrek. Ez da, ez, debalde irakasten. Ez esan, ordea, beste munduko mauka edo paotxa denik. Bai, bota nahi duzue. Arrazoi duze. Ez dizuet ukatuko. Baina nork sartu du inoiz muturra diru asko egiteko asmoz? Diruak diru egin zezakeen bazter guztietan sartu du muturra. Ez du txoko bat ere miatu gabe utzi.

Horregatik idazten dizuet. Hitz berberak irabiliarren ez gaithekeela mahai berean exeri esateko, alegia. Badakit edozein lanetan eskua eta burua, biak beharrezko direla. Eskua bakarrik itsu da. Burua bakarrik hutsa duzu.

Baina ez dugu zuen buruaren beharrik. Eskuak beste bururik ez duenean beharrezko gerta ditekete. Badira, zuen bururik ez badute ere, hain burugabe ez diren eskuak. Hauek bat egiten dute bururik gabeko eskuak. Zuek, berriz, zeurren burua ezartzen diezue duten apurra kenduz. Buruz aldatzen dituzue. Zuen buruz pentsatzen eta hitz egiten dute.

Lan ederra zuena! Andare egille. Gizarajotzaile.

Amaitzera noa. Gauza asko esan dizaiuzuek. Haxe bakarrik eskatuko dizuet bukatzeko. Utziguzue behartsu izaten, baina ez eiguzue deitu ez gizarajo, ez ifioxente eta ez buru-motz. Hala izango gera agian. Baina ikuskizun dago. Dena

den ez eiguzue hola deitu. Nahi baduzue lagun eiguzue hala gerala ikusten. Bestela zail zaigu mahai berean exertzea.

Ez zaitezela, arren, mandamas hutsak izan. Zuen arbasoek errosarioz, santuz, meزاز eta eskupekoz irabazi nahi izan zuten zerua. Zuek beste azkarkeria bat asmatu duzue. Denetik duzue eta aurrerakoi bezala azaltzen zerate. Aurrerakoi ere izan zitezketek. Inork gutxi edukit dezakeen lujoan bizi zerate. Gutxi dute eta urri den zerbaizen jabe zerate.

ARANEGUI

EUSKAL GAETAN BARN

# GAURAUDY EUSKAL - HERRIAN

Mugaz handiko lagun batek duela zenbait egun Gaudy jaunak Donibanen eta Hazpamen eman dituen hitzaldien berri ematen zidan. Hasierre bizian eman ere.

Donibanen, dirudienez, jende dixente zegoen Gaudy jaunari entzuteko prest. Horregatik Donibanen ez zuen gauza handirik esan. Hazpamen, aldiz, jende gitiago zegoen, eta honek eraginik edo, bereak eta asto beltzarenak esan omen zituen euskaldunen kontra. «Probitziano» eta nik dakita zer gehiago deitu zigun filosofo itaioak...

«Ez dut konprenitzen euskaldunek zer nahi duten...»

«...eta gainera, zerbaiz egitekotan, iraultza edo egitekotan, ez duzue Euskal-Herriko mugan estuetan gelditu beharrik, besteei erakutsi egin behar diezue, eta beharrezko bada, zuen menpeko egin...»

Haritschelhar jaun euskaltzainarekin bazkaldu omen zuen. Eta aho zabal-zabalik gelditu omen, Haritschelharrek euskal literaturazko klaseak euskeraz ematen zituela esan zionean. «Baina, zion Gaudy-k, frantsez hizkuntza euskara baino milaka aldiz aberats eta landuago da...». «...debeloparen kontra jokatzen ari zarete...»

Eta Haritschelharrek erantzun: «Unamuno mintzo zen zu bezala duela hirurogi urte».

Gaudy, dugun garbi esan, ezer izan baino lehenagotik, frantsesa da. Eta frantsesen nazionalismoa paregabekoa omen da. La grandeur de la France... Eta «grandeur» horretan, frantses estatu barneko nazioen explotazio edo ohointzaren ondorioz, akortm objetiboki, bai errepubliko buruzagiak, bai Gaudy, bai... Utz ditzagun alde batetara hitz huts eta politik, frantsesen interes eta euskaldunak kontrakoak baitira oso. Gaudy-k Bretaina, Euskal-Herria, Occitania, frantses estatu barneko herri guztien deretxoak ukatzen eta ignoratzen ditu, errepublika jaun buruzagiak arabera.

«Il n'y a pas de place pour langues et cultures régionales dans une France destinée à marquer l'Europe de son sceau» (errepublikako lehendakariak 1972ko apirilaren 14an) «Les provinces» (régions edo, nonbait) sont peuplées indigènes placés sous la coupe d'un gouverneur: le préfet qui sait ce qui est bon pour eux».

(M. Max Moulins, préfet de la région Rhône-Alpes. Le Figaro 1972ko Martxoaren 24ean) «La France n'a jamais connu ni les problèmes linguistiques, ni les difficultés ethniques, ni les guerres de succession».

(M. D'Ornano, Deauville-ko alkate-deputatua, Assemblée Nationale delakoan, 1972ko apirilaren 26an).

«Ezkeriaz nahiz eskubitar, baina frantsesak bai batak, bai besteak. Laudorio gehiegi egin zaio Gaudy-ri Euskal-Herrian —esaten zidan lagun horrek—, eta jakin behar genuke, behin betirako, Gaudy gure etsaia dela. Eta ez nolabaiteko etsai gero.

G. KNÖRR

# GAUR ETA HEMEN

Pentsaera bat baino gehiago da gure artean. Baina bi taldetan dago bereziki zatitua gure gazteria. Bakoitzak, bata besteaz oso desberdina den jokaera eta bidea harturik dauka. Biek egiten dute gaurko Euskal Herriaren atzerketa. Biek ondoren eta erabiki desberdinetara jotzen dute, ordea.

Ez dute berdin pentsatzen etorkinei edo atzerritarrei buruz. Talde batentzat gertaera hau, olatua bezala jendea etortzea, alegia, Herria esnatzeko bide da. Egoera honek gizarteko aldrebeskeria eta kontrataste nabarmendu egiten ditu. Besterik gabe honek gizarteko arazoena urtean zirt edo zart azkarra eta gogorrago egin arazten digu.

Hau lanaren eta etekinaren arteko gorabeheretan noiznahi eta nonnahi gerta ohi dena besterik ez da. Hontan beste herri guztiak bezalako da gurea. Atzerakorik ez duen abiadan murgildurik gaude besteak bezalaxe. Marxismo dogmatikoan oinarritzen du bere jokabide hau. Marxismoa beste era batetara her diteketeenik ere ez du onartzen.

Nazionalismoa kaltegarri den zerbaiz da. Nazioartezale da. Euskal Herria bere buruaren jabe izan ala ez izan, hori gero erabakiko den zerbaiz da. Orain ezin gaitzeko hortan denbora galtzen eta dirudunen atzaparretan erortzeko arriskuan jardun. Gizartearen iraultza egin behar da aurrena. Ez du euskal arazoa kapitalismoaren erasoan sartzen. Besterik ustea, arrazakerian eta chauvinerian jaustea da. Hontan gauzak garbi dauzka bere ustez eta ez ditekete elkarrizketarik beste inorekin. Egoera desberdin ikusten du eta jokatu ere desberdin jokatzeko du.

Beste talde haundi batek ez du honela uste. Herbesteko jende honen neke haundiak ezartzen dizkio herri bizitzari eta gizarte bizitzari. Indar baterakoien jokoa izan da hau, dena esku eta ardatz batetik zuzendu nahi duen jendearen jokoa, alegia. Hontan lagun onurakitu dituzte hemengo nagusi eta dirudunek. Axola gutxi sakelak ondo betez gero nahiz eta hazkundea ez eta ez buru, itsu eta satsu egin.

Badaki talde honek ere kapitalismoaren joko eta erasoan bizi gerala. Baina bada horren barruan herri razoa ere, bazter ez diteketeen arazoa. Euskal Herriak badu herri den ustea. Agian langile den baina herri den ustea biziago nabari du. Langile zapalkeaz baino areago jabetua dago herri zapalkeaz. Iraultza grina-eta, Indar haundiagor aurkitzen da gainera herri-sena langile-gude baino. Bide erdian baka-

rrik geratzen bait da azkeneko hau. Lehengo hariari halduz: % 30 edo 40ra iritxi da herbestekoien emana. Haundia, noski, haundiegia euskal-begiz atzerturik. Eta batez ere bere buruaren jabe ez den eta urteetan zehar hori irrikaturik dabilen herriarentzat. Europari begiratzeko badiogu % 5era ez bait da iristen.

Hazkunde bera ere buru eta zentzu gehiagorik egin beharrezkoa zen zazpi Probitzietan. Ez da Euskal Herria lanbidez berdin hornitu alderdi guztietan. Milaka gaztek joan behar izaten dute atzerrira Ipar-Euskal Herriak lan bila, lanik isilenak eta lotsagarrienak egitera. Hazkundeak neurri egokian, taxutua beharke zukeen izan. Iritzi hau duten taldekoek ez dute beren burua chauvinistatuz eta arraza-zaletzat jotzen. Herritasunari eta herriaren iraupenari begiratzeko diote beste herri askatu guztiak ere. Ametsak alde batera utzirik naziotasunean oinarritzen dira gaurregun estatu guztiak bai kapitalistak eta bai sozialistak. Eta amtsentan ibili nahi ez bada, gaurregun ez da beste biderik munduan bizirik irauteko. Gero, heziera berrian gizon berria sortutakoan zer gertatuko den? Gaurko beste biderik ez da.

Bi taldeak elkarrekin nola uzartu? Ez alderdikeriak eta ez setakeriak du iraultza indarrik, ez eta politikari begirik. Begi argiagor eta sena bizkorrago behar da egoera larrietan. Inor ez da egia osoaren jabe. Denok dugu egia izpi bat. Gutxi gara eta elkarrekin egin behar dugu bide bilatzea. Elkarrizketa leialak ez digu behin ere galerririk ekarriko. Aginte-goseak, norke-riak, mendera-nahiak, setakeriak, gutxi horrek bai ondutako gaitueta. Hel dizagun elkartzeko gaituzten alderdiei.

Hontan datza gakoa.

J. J. REKONDO



Zuzenadaria:

MIREN JONE AZURZA ARISTEGIETA

Nafarroa-Kantauri eta Aragoiko Kaputxinoak argitaratua (Kale Nagusia, 50-1.º Burlada-Pamplona).  
Donostian: Okendo, 22  
Tel. 42 66 66

ARPIDE SARIA:

Barruan	300 pezeta
Korreo batasunetako errietan	350 pezeta
Atzerrietako beste errietan	370 pezeta
Aldez	Aurrez galdetu

Salmetan (ale bakoitza) 7 pezeta



## BERRIAK

Abenduaren 16an. eratzeko da Iruñean Gabon Kanta Berrien VI Lehiaketa. Honako hau kanta lehiaketa soila da, ez, beraz, kantari

lehiaketa.

Oraingoz hautatuak dira aipaturiko egunean parte hartuko duten azken hamar kantak, zeinetatik bat bakarra izanen da euskaraz, Gabaren erdia, alegia, Gasteizko Cipriano Larrañaga jaunak hitzez eta doinu burutua eta moldatua. Honako hamar kantak aurkeztuko dituzten kantariak hautatzeko daude oraindik.

● Pedro Migel Urruzuno elgoibartar idazlea berrogeita hamar urte hil zela eta (1923), elgoibartarrek omenaldi bat eskaini nahi diote datorren urtarrean. Zerbaiten nahian ari dira gure elgoibartar kementsuok, bertako seme ospetsuari buruzko zer edo zer antolatze asmotan. Ez dugu zalantzarik gauza ederren bat eskainiko digutela, zeren elgoibartarrek bezalako finik eta benetaririk guti Euskal Herrian.

Oraingoz jakin ahal izan dugunez, Euskaltzaindiak urtarriaren 21ean. Elgoibartan egingen duela agiri biltzar bat agindu die elgoibartarrei, igande horren inguruan edo eratuko dira ba jaiok.

Urruzuno nor zen, euskaldun askok eta askok ez daki. Hala ere, euskaltzaina genduen, eta Severo Altuberen ustetan, Euskal Herri Literaturan barrena eredu garrienerikoa. Horrez gainera, hiru haina liburu argitaratu emanak ditu AUS-POA Liburutegian, nor esan gero! Eta, oraintsu, hain zuzen, haren iloba den Jose Mari Etxaniz Urruzuno jaunak bere osabari buruzko artikulua bat eskaini digu GOIZ ARGÍ aldizkarian (1972-X), bai eta haren ziri eta esanaldi batzuk ere.

Nonbait hasiak gara girotan, Urruzunori eskainiko zaien omenaldiaren zain.

● "Cultura Provincial del Movimiento" delako batzordeak eraturik, prestatu berri da —zenbait taldetan— hogeita bost urte arteko gazteentzat literatura lehiaketa bat. Lanak euskaraz zein gaztelaniaz egin daitezke, eta nahi eta nahiezko gaia, berriz: azken gerran hildakoen gorasarre.

Ez gaitzen gu gaiaz mintza, ez bait dugu sasoirik lehiaketa horretan parte hartu ahal izateko. Euskaraz egin ahal izateaz, berriz, zorionak. Nonbait "habla Vd. en cristiano" delakoa joan zaigu historian zehar.

● Hiiabeteko isilunearen ondoren agertu zen berriz Durangoko Azokan Bilbaoko ANAITASUNA hamabosterokoa. Isilune honek, beste zenbait gauzaren artean, zuzendari berria izendatzeko balio izan du. Izan ere, oraindik ez dakizku ere, irakurle, Imanol Berriatua dugu euskal hamabosteroko bakarraren zuzendari berria.

Durangoko azokan elkar ikusi genduen, baina ez genekien guk oraindik izendatze horren berri. Bihoakio ba, nahiz eta hamabost eguneko atzerapenarekin, gure zorion sutsuena.

Lehenago zuzendaria, berriz, hertzain edo, hobeto esan, "kalezain" jarri dute. Ofizio horretan berria izanik edo, uniforme txikiak nonbait, eta hor hasi zaigu azka batetik bestera. Eta azkenean, amorraren amorruez, ordenaren, legearen eta "permitizioren" txistua jo digu nora ezezko bide gurutzean.

Baina, jakina, azkura ez da azka egiten joaten. Agian, uniformea apurtxo bat zabaltoagoa egin behar, baina... zer koloretakoa ez jakin ordea!

**KEZKA** Astebeteren buruan, lau etorri zaizkigu zenbait galderatxo egite aldera. Batek, hilarri batetako testoak nola behar lukeen izan euskaraz jakin nahi zuten. Beste batek halako programatxo bat zekarren guk euskara genezan. Pintore batek, berriz, erakusketa batetan bere kuadroen izenak euskaraz jarri nahi lituzkeela eta, ea nola. Laugarrena, azkenik, idazlantxo batez etorri zitzaigun, ondo zegoen jakin gurarik.

Eguneroko egunerokoak, noski, nor bere problema txikiak, nor bere mundutxoan bizi bait da. Baina, azalezko huskeria hauetaz kanpo, kezka eta jakin nahi bat nabari da. Hutsaren hurrengo kezka, apika, baina edozein modutan ere kezka. Euskal kezka, alde batetik, eta ez jakitearen kontzientzia eta aitormena, bestetik.

Izan ere, edozein arlotan, norbaitek guk baino gehiago dakiela aitortzen dugunean, orduantxe —eta ez lehenago— has gaitzke ikasten.

● Era honetan, oraintsu irakur ahal izan dugu —ez dugu non—, hizlariaren batek Gipuzkoako herriren batetan eman duen hitzaldiaren berri. Gauza benetan polita, semeek —adinaren arauera— nor bere aitaz duten iritziri buruz harako hizlari ezezagunak esan omen duena, hots:

Sei urtetako haurrak esaten omen du: Aitak asko diakik. Hamairukoak, berriz, Aitak ez diakik hainbeste. Hamasei urtetako semeak: Aitak ez diakik ezer. Hogeitabostekoak, aldiz, Aitak badiakik, ba, zertxobait. Hogeita hamabostekoak: Aitari galdetu behar zioat. Berrogeita bostekoak, azkenik, Zoritarrez ez diat orain aitarik, hontaz eta hartaz galdetzeko.

Ez dakigu guk azken bi adinen berri, ezin ba jakin! Baina, egieren nahiko hurbil iruditzen zaizkigu lehen bost adin epeak. Eta ezin uka, halakoren bat gertatzen zaigula, aita-semeen arteko harremanetan ezezik, bai eta bizitzaren zeharreko beste amaika arazotan ere, ta antzerako gazte-nagusiaren arteko harremanetan ere. Zer esanik ez, euskalgintzan ere berdintsu gertatzen ari zaigula zenbaitetan.

**EUSKALTZAINDIA** Pixkaka, pixkaka, agian zenbait nahi baino soseguzago, Euskaltzaindia lanean ari zaigu gelditzeko. Ortografiako zori-neko arazoa, haur hiztegia, aditz batua, agiri biltzarrik, Euskal Izendegia, EUSKERA aldizkaria sarritasun eta arnasa berri batez argitaratu ematea, eta beste hainbat.

Orain berriz, denden eta komertzioen izenei buruzko zerrenda bat eskaini digu Xabier Kintanak, Euskaltzaindiaren arduraren pean, eta, dendei buruz ezezik, bai eta dendariet dagokienez ere.

Euskaltzainek eta laguntzaileek beharko dute orain aztertu gure bilbotarraren lana, nor bere iritziz komeri diren zuzenketak eta eraskinak ezarri, azkenen batetan Euskaltzaindiak berak hartaz bere iritzia eman dezan.

**LIBURUAK** Nafarroan barrena euskararen gaur eguneko egoeraz jakiteko, liburu guztiz interesgarria Granadako Unibertsitateko irakasle den Jose M. Sanchez Carrion jaunak argitaratu eman berri duena.

Sanchez Carrion irakasleak —euskaldun berria— Nafarroa herririk herri miatu eta maxiatu ondoren, berrehun orrialde pasatako istudio sakon bat eskaini digu: zein herritan arras galduta den euskara eta zeinetan ez; non mintzatzen diren herritarrik gehienak eta non zaharrak bakarrik, eta hainbat eta hainbat xehetasun jakingarri. Esate baterako, galdu den edota galtzen ari den tokitan, ez bakarrik galdu dela, bai eta zergatik galdua den ere. Hots: a) Industria (Altsasua); b) Udatiarrak (Lekunberri, Bera, Auritz...); c) Burokrazia (Santesteban, Elizondo...); d) (Kuartelak...) eta beste zenbait.

Bataz beste, euskarak atzerakada demasa sufritu omen du Irigaray eta Caro Barojaren istudioak jakinarazi zirenetik. Izan ere, hiru herritan ezik, gainontzeko herri guztitan gutitzen ari omen dira euskaldunak, haurrak gero eta gehiago gaztelaniaz, alegia. Hiru herri euskaldun hoik, Urdiain, Gorriri eta Aranaz omen dira, ohitura bati jarraituz ezezik, herri kontzientzia batek eraginik eta hizkuntzarekiko nortasuna baliaraziz, eguneroko jokabidean euskaldun azaltzen diren herriak bait dira.

Halako azterketa bat egin beharra zegoen, zeren gaixoa sendatzeko gaixotasuna zertan datzan beharrezko da jakin lehenik. Hara hon granadatar batek egin digun egin beharrezkoa. Bejon dagoia.

EL ESTADO ACTUAL DEL VASCUENCE EN LA PROVINCIA DE NAVARRA (1970). Colección Pueblos y Lenguas. Institucion Principe de Viana. Pamplona, 1972.

**IKAS** Liburu guztiz bikaina Lafitte jaun euskaltzainak moldatu berri duena eta Baionako IKAS editorialak argitaratu eman. Poemes Basques de Salvat Monho (1749-1821) deritzale honi eta tituluak berak dioenez, Monho zeritzan bertolari zahararen bertso bilduma bat duzu.

Salvat Monho Ustaritzen jaiola zen 1749 urtean, beraz, gaur egun ezagutzen dugun bertsolari zaharretakoa dugu, Gipuzkoako Fernando Amezketa eta Izueta Artzainak baino zertxobait zaharragoa.

Halaz ere, honen zaharra izanik ere, haren berrogeita hamar inguru bertso eta kanta bildu ahal izan ditu Lafittek. Bestalde, harako bertsolariaren bizitzaz eginiko zenbait xehetasunek osatzen du honako bilduma guztiz baliotsu hau.

Damurik, Lafitte jaunak frantsesez argitaratu eman ditu bere xehetasun eta agiriak, eta hego aldeko irakurleentzat honek ekar dezakeen iluntasun eta zailtasunaz gainera, hementxo zenbait idazle gaztelaniaz idazten duenean zenbaterainoko balioa duen hangoentzat oroitarazten digu.

● Ikas Sorta berberak beste liburuak polit bat atera berri du. Har-Uz-Ka deritza, eta "Zephuruk" gaitzizaren pean Xalbat Arotzamenak buruturiko zenbait ipuinen bilduma bat da.

Hogeita bat ipuin eskaintzen dizkigu "Zephuruk", zein baino zein politagoak eta herrikoiagoak: "Peru eta Maria", "Baigorriin astoak astronomo" eta beste halako zenbait, euskara erraz erraz batez.

Ipuinok, bestalde, Euskal-Herri guztian zehar gertatuak dira, Zuberotatik hasi eta Arratiarainokoa, Deba eta Motriku artean dagoen Doistu (?) herria ere aipatuz. Eta, kontu kontari aipatu ere, aitona zaharrak iloba kutunari subzterrean kontatuko liokeen bezala.



**BORDEL** Antonio Arrue euskaltzainak moldatua du El bertsolari BORDEL en el Castillo Donostiarra (1823) izeneko lantxo bat. Hogeita bost orrialde baino ez dituen liburuak bat da, baina, behar bada, nahi eta nahi ez kontutan hartzeko Bordel bertsolari luzaiderak Donostian soldadu egin zuen egoera hartaz jakiteko.

Liburuttoaren amaieran, Urgull gaineko Mota Gazteluan Bordel zenaren oroitherraren bat jar izan dadila proposatzen du gure Arrue jaunak, bai eta Satrustegiren Bordel Bertsolaria (Auspoa, 45) salgai ipini ere, gaztelu hartara joanen diren ikusleek gure bertsolariaren berri ere jakin dezaten.

Honako liburutto hau Donostiako Aurrezki Kutxaren arduraren pean argitaratu emana da, "Temas Donostiarras-2" delako sortaren barrena.

**BIBLIOGRAFIA** Dakigunez —Durangoko azokan berak esana—, Donostiako liburu denda batetako ugazaba den Arbelaitz jauna Euskal Herriari buruzko mila eta zortzirehun liburu osatuko duen katalogo bat atera beharrean dugu laster batetan. Katalogo hau, liburu denda hartako zabalkunde gisa aterako da, eta dohako izanik gainera, benetan baliagarri gerta daitezke jende asko eta askorentzat.

● Bestalde, Nikolas Alzola Gerediaga, "Bitaino" zein "Anai Berriotxo" dena, euskarazko liburu bibliografia bat prestatzen ari omen da.

Ezin uka, beharrezko dugula halako lanen bat, zeren sari asko azoketako katalogoekin baliatu behar izaten gara zerbaiten premian aurkitzen garenean, edota liburu baten edo besteren berri jakin behar dugunean. Eta jakina, esan beharrik ere ez da, katalogo hoiek beren funtzioa betetzen badute ere, ez dutela inolaz ere bibliografiako baliorik, liburu katalogoak baino liburu zerrenda soilak bait dira.

● Honetaz erabakitzeke, euskal —edo hobeto esan, Euskal Herriari buruzko— liburu katalogo moldatzeko, alegia, "Cinsa", "Irakur Sail", "HerriGogoa", "Lur", "Auspoa", "Etor", "Euskaltzaindia", "La Gran Enciclopedia Vasca" eta "Gerediaga" elkarteko arduradunak Durangon elkartu ziren hilaren 4ean.

Durangoko VII Liburu eta Disko Azokaren berri ematean esan genduen, elkar lanean katalogo bat ateratzekotan geratu ziren han bilduok, liburuaren titulua, egilea eta editoriala adiaraziz ezezik, bai eta eraskin bat ere ezarri, gaiz eta mamiaz zertxobait jakinaraziz, euskaraz ala erdaraz den, etab.

Gure ustetan, katalogo horretan ipar aldeko liburuak ere agertu behar lukete, eta katalogoaz gainera, beste horrenbeste azoketanbarrena. Horrela, hego aldeko irakurleak hemengo liburu dendetan zail samar aurki ditzakeen liburuak erosteko aukera izanen luke urtean hiruzpalau alditan.

**DENETARIK** Bilbaoko "Euzkerazaleak" (ea noiz "Euzkerazaleak" ditugun), irakurtzen ikasteko liburuak polit bat argitaratu eman zuten duela hiruzpalau urte, Muñoa eta Foruruak egina eta Aurtxoaz izenez.

Orain arte ez dugu aukerarik izan liburu hori irakurtzeko, baina halakoren batetan hori ere parean tokatu zaigu eta, hara zer irakur ahal izan dugu 25. garren orrialdean: Beruna gori gorria dago.

Eibartarrentzat, behintzat, gauza barragarria, hemen haurrek ere badakite berunik ezin dela goritu eta. Beraz, argitaraldia berritzean edo, baldin batasun bideko euskaraz jaritzen ez badute ere, mesedez, arren! burdina gori gorria dago jari, beruna goritu baino lehen urtu egiten bait da.

● Hilaren 7an. Motriku "Goizeko Izarra" antzerki taldeak J. Begiristainen Apaiza, langillea, gizona delako antzerki lana aurkeztu zuten.

● HERRIA Baionako asterokoan irakurtzen dugunez —aipatu ahal da honetaz zerbait hego aldeko aldizkarietan?— Urkiola ganean bildu omen dira oraintsuan Euskal Liturgia Batzordekoak. Karmelo Etxenagusia eta Mikel Zarate bizkaitarren zuzendaritzaren pean eratu omen zen harako azken biltzarra, zazpi herrialdeko arduradunak bertan zirelarik.

● "La Gran Enciclopedia Vasca" delakoak Nafarroan barrena egin duen inkesta batek erakusten duenez, nafartarrak giputzak eta bizkaitarrak baino irakurle hobek omen dira.

Ez dugu guk, noski, ezertxo ere nafartarren aurka, baina interesgarri lizateke jakitea zer eratako inkesta egin den, nolako galderak egin diren, eta zer irakurgaitan oinarritu den harako inkesta, zeren euskaraz hain liburu guti argitaratzen duen euskal editorial baten inkesta ondorioak duda-mudatakoak izan daitezke; are gehiago jakinik, gaztelaniaz argitaratzen dituen liburuetarik asko eta asko, irakurgarriak baino konsulta eratakoak direla.

● Irakurle orok dakienez, IUR editorialak Friedrich Engels sozialistaren bi saiakera eskaini zituzkion Durangoko Azokan: Sozialismoaren Aurrerabidea Utopiatik Zientziara eta Ludwig Feuerbach eta Aleman Filosofia Klasikoaren Amaiera. Saiakera biak Xabier Kintanak euskaratuak ziren, eta itzultzailearen beraren hiztegi batek osatzen zuen LURen azken alea.

Iragan denboran ari gara, zeren, dagoeneko harako liburu hura desegin egin da, edo hobeto esan, desegin egin dute, agintariak bahitu egin bait dute, alegia.

Liburu hau ez da ba salgai jarriko, eta, are txarrago, ez zaie harpidedunei bidaliko, agintariak edizio osoaz jabetu bait dira. Egundainoko zuloa, ba, Donostiako euskal editorial honentzat.

Editorial berak gutun batez xehetasun gehiago emanen omen die bere harpidedunei hauzi honetaz.

# GURE TXOKOTIK

AUTESKUNDEAK

Azkenaldi honetan, organikoak ez diren demokrazia giroko zenbait estadutan auteskundeak eginak dituzte, eta Alemanian ere auteskundeak gertutzeal ekin diote.

**CANADA:** Azken auteskundeen resultadoak ikusirik, ondoren sorko dela badirudi. Dakigunez Canadian bada problema larria, Quebec-en nabari den abertzaletasuna alegia. Arazo honek zer ikusi haundia izan du azkenaldi honetan. Izan ere konserbadoreek berebiziko egurra eman diote federalismoa proposatzen zuen Pierre Elliot Trudeau jaunari. Quebec-en barruan bere botoak nagusitu dira, baina anglo zaleek bizkar eman diote. Garailea: Robert Stanfields konserbadorea izan da. Dirudienaz inperialismoak zutik dirau, eta Quebec lurraldean halamoduzko bakeak iraungo du, baina noiz arte?

**U.S.A.:** Auteskundeak igaro berriak ditugu, eta Nixonek lortu duen garaipena erabatekoa dela esan daiteke. Zer esana franko eman du aurtengo auteskundeak. Demokrazia horren gaitzak salatuak izan dira, bertan gastatutako dirutzak txartzat emanak, amerikarren konserbadore joera gaitzetsia. Bertako kapitalisten iritziz McGoovern urrutiegia iritsi omen da. Guk, egia esan, ez genuen besterik espero. Vietnango gerla bukatuko omen da luzarora gabe. Beste puntaren batetan ez ote dute sua berriro biztuko?

**ALEMANIA:** Hemen ere auteskundeak laster, eta kanpainaren arazorik nagusia, bihurriena, Alemaniaren zatiketaren egoera dute noski. Brandtek errealdadea den bezala gogoan hartuaz bi zatien arteko harremanak sendotu nahi dute. Besterik pentsatzen dute Barzel eta bere kideek. Oraingo posible ez den Alemania bakarria nahi dute. Behin eta berriro Alemaniako auteskundeak esames eta berriketarik sortuko dute. Behin eta berriro demokraziaren gaitzak nor salatu izango da.

Gure aldetik zer esan? «Demokrazia inorganiko hauek» ez dira bete bete eta osorik ontzat emateko modukoak. Baina txarragorik ere ezagutzen dugu.

MARRUECOS

Abuztuan erregeren aurkako ekin aldian zela eta, militar batzuk epaituak dituzte oraindik orain Kenitran. Herrialde honetan ez doaz gauzak ondo, erregek etsai asko du, eta ez dirudi herria ere bere alde duenik. Indarraren jaun eta jabe bihurtu zaigu erabat. Prozesu honetan, hamaika militar izan dira heriotza zigorrak kondenatuak. Dena lehenean geldituko ote da?

HANDIK ETA HEMENDIK

Kapitalismoak aspaldi galditu zituen estaduaren neurriak. Geroztik nazioz gandi bere indarra ez da gutxitu, sakabanaturik egon zitezkeen indarrak batutzen doazkigu. Citroen kotxegilea bere kapitala eta inbersioak haunditu premian aurkitu da, eta Fiat, beste firmak ere, % 27 akzio erosiak izan behar ditu. Espainian ere, transmisio piezatarako, bien artean lantegi bat jasoko dute. Beste kukurruku batek joko luke herri mailan hainbateko alkartasunik bagendu.

Aita Santuak behin eta berriro bere kezka erakutsi du. Santu Guztien egunez. Batzar Nagusien fruituak hutsean geldi ditezkeen lanean ari denik bai omen da. Bakoitzak bere kandela jasoko ote du?

Kulturaren garrantziaz jabetuz goazela dirudi. Oraindik orain, Giron jaunak hauxe esan berria du: «Kultura, hogeita emerretzi urte badira hauxe esaten dugula, iraultzaren oinarri eta eraginik sendoena dugu...». «Sindikatoak indartsua eta ongi trinkotu behar du bai ekonomia, sozial eta politikoko mailetan, bere jomuga elkarren arteko buruketan desegin ez dadin...». Ez dira nolanhiko esaldiak.

Inglateran, Heath jaunak journalak eta prezioak geldierazi, izoztu, «konjelatu» behar direla dio, inflazioa mugatu dadin. Hemen, oraingoz, prezioak agirian jartzearekin nahikoa izango dela dirudi.

MIKEL UGALDE

# TEORIA (III)

## Feudal-egiturak gaurregungo inperialismoan

Inperialismoaren mekanismo klasikoak bi hauek dira: a) Langintza goitik behera erabakitzea; eta b) hartuemanen feudal-egitura.

A. Lenin-ek geroztik inperialismoa aztertzen denean, beti zera agertzen da: herri azpiratua lehenkaian sotzaille da; erresuma metropolitanoa, aldiz, fabriketako gauza egilea. Honek, erresuma inperialistak lehenkaiak bere kolonietatik ekartzen zituen eta ditu etxera. Koloniei, berriz, hauek behar dituzten tresnak saltzen dizkie. Sal-erosketa horretan, ordea, Erdikoaren indarra bortitza da Periferiako merkataritza gaixoena baino. Horrela, prezioa ez da indar berdinetan erabakitzen, eta ahalena merke saldu eta garesti erosi beharrean aurkitzen da. Honek esan nahi du, algodoi-emale den lurralde pobretu batek, gero eta kantitate handiagoa ematera beharrik aurkitzen dela, baldin, Erdikoetik, Metropolitik, makinaren bat edo tresnaren bat erosi nahi badu. Izan ere, industrietako gauzen prezioak bizkorrago goratzen bait dira laborantza emarien prezioak baino.

Komertzio desberdin honek, haatik, Inperioa aberastu eta Kolonia pobretu bakarrik ez du egiten. Hobeki esan komertzio desberdin honek, herri azpiratu guzira, hots, bere kultura eta gizarte zapaltzen du. Nazio dominatzailea, aldiz, indartsuago bilakatzen da. Ez, hatik, ekonomia-ondasunetan eta harmadetan bakarrik. Bai beste gizarte egitura eta ondasun anitzetan ere. «Erdiko» nazioaren jantza, unibersitatea, hezikuntza, asmatena, langintzarako eskua, biziera, hitz batetan, aurrerapenerako indar oro, biziki hedatzen da. Eta, ondasun herietarik deus ere, esaterako, ez da herri azpiratu, atzeratuan ikusten.

Gaurregun Lenin-en denborako eskema hori ez da guziz arbuizatu. Bada, oraindik, munduan gisa honetako azpiramendu gehi egi.

Halere, «inperialismo gogoetak», gaurregun, ez daduka eskema heretsi horren horretan bizitzetik. Beraz, inperialismo gogoetak (ekonomia alorrari orain soilki gogozkiolarik) ez du «lehenkaian eta eskukolanen» trukaketa desberdinean ito behartruke ez berdinek, inperialismoaren errotik, sortzen direnek beste anitz forma erakusten bait dute, egungo munduan.

Gorago esan dugunez, Erdikoak badu indar politikoa eta indar ekonomikoa hazkunderen eragile nagusienak bereganatzeko: zientzilarik, ikerguak, lantegi teknika onez hornituak; eta finantzen eta kapitalen sareak ere berak, Erdikoaren botereak, hedatzen eta biltzen ditu bere estratejiaren arabera.

Horrela, Periferia edo koloniak, gaur, ez dira printzipalki lehenkaian sodterri. Periferiak ere badu industriadik, baina ez «Hirugarren Belaunaldikorik», ez puntako industria aurreragilerik. Horretarako, hala infrastrukturen nola hirigintzan, inbersio handiak egin beharra dago (industria berrienak erakartzeko, alegia); baina Erdikoak, Periferiarako, kondarrak baizik ez ditu eskaintzen.

B. Inperialismoaren bigarren mekanismoa zera da: feudal egitura: honek sostengatzen, senditzen eta babesten du Erdikoaren eta Periferiaren arteko desberdintasuna.

Zergatik diogu feudal egitura? Feudalismo-aroan, mendekoa Jaunaren zerbitzuan zegoen bezalako erlazioak agertzen zaizkigulako Erdikoaren (Inperium) eta Periferiaren (Mendekoa) artean ere.

Har ditzagun, adibidez, Errusia Sobietikoaren eta Sortaldeko Alemaniaren (DDR) salerosketak. DDR-k industriako produktioak saltzen dizkio Errusiari, eta lehenkaiak erosten, «Inperialismo-gogota» zaharraren arabera, Erdikoa, hots, Nagusia, zera izango litzake DDR (lehenkaiak etxeratu eta industria-emariak atzerrira bialtzen

dituelako) eta Errusia Sobietikoa izango litzake Periferia edo Erresuma azpiratua.

Baina, Errusia eta DDR-ren artean beste erlazio politiko bat dago, hain zuzen inperialismo politikoa. Eta Politika-maila gaineratua dagoelako Ekonomiko mailari, deitzen zaio erlazio azpiratzaile honi «Feudal Egitura».

Feudal Egitura horrek abantail handiak ekartzen dizkio Erresuma Nagusi den Errusiari, eta galerak, noski, sortaldeko Alemaniari.

Hontan agertzen da «egitura azpiratzaile» aipatua:


● Erdikoaren eta Periferiaren arteko hartuemanak ez dira kide berdinen artekoak. Aitzitik, goitik-beherakoak.

● Erdiko baten eta berberaren periferiako diren bi nazioak, guziz gaitza dute elkarren arteko hartu emanak eta salerosketak deliberatu, erabaki eta aurrera eramatea. Horretarako, hau da, beste periferia-kide batekin hartueman garrantzitsuak lotu ahal izateko, Erdikoaren onspena behar dute beti: Garbiro ageri da hontan feudalismo-erlazioa.

● Kanpoko munduarekin, berriz, erlazio eta hartueman sakonik ez daduka, berez, librok, periferiako nazioak edukitzetik. Kanpoko munduarekiko tratu oro Erdikoak eskutan hartuak eta monopolizatuak bait daduzka.

Hiru erlazio hauek, beraz, garbio agerrarazten digute nola, Inperialismo-errealitate batean, feudal-erlazioak ere aurkitzen diren.

Egia da, nazio kolonizatuak askatasun politikora heldu direnean, feudal-egitura hori zartatu egin dela, hein batetan. Halaz ere, bai Mendebalean, bai Sartaldean eta



Washington-go Kapitoloia

zer esanik ez Afrikan, Estadu izatera iritsi diren Herri anitz, ez dira oraindik «Jaun-mirabe» erlazio edo egitura honen azpitik iriten libro.

Tito-k Stalinekin bortizki hautsi zuenean, 1947-48an honengatik izan zen: Yugooslabiak eta Bulgariak Konfederazio politikoa eraiki nahi zuten elkarren artean. «Jauna», ordea, kontra altxatu zen eta Tito-k orduan Errusiaren kateak apurtu. Antzeko gauza gertatu zen, 1956an, Egiptok Suez nazionalizatu zuenean; baita Chile-n ere —aurrena Frei-rekin, eta nabarmenago Allende-rekin—, kobreakordioa Zambiarekin hitzartu nahi izan zuten, USA-ren Nagusigoaren aurka altxatuz.

G. ANSOLA

ERLOJU ETA BITXITEGIA

**Eduardo Chopetia**

Getaria, 10-Urrut. 417751-Etxekoa: 422700 - DONOSTIA

JOSTUNDEGIA MODISTEGIA

**UGARTE**

Urbietan, 66 DONOSTIA

**Ez Merkenak**

**Bai Onenak!**

Janari bidez izaten dira ganadu on, indartsuak, Eta nora jo jakin bear du baserritar burutsuak, Berebiziko aragi pillak; gañera esne putzuak, Oiek guziak berekin ditu Fanderia'ko pentsuak.

**FANDERIA**

**ERRETERI**

Ur-neurlariak: TAVIRA DELAUNET

CONEX-SANBRA: Ur-bide era berria

Txaramillak

**iberconta**

IBERICA DE CONTADORES Y APARATOS DE PRECISION, S. A.

Bilbon: Henao, 23

Donostian: Aldamar, 14

Iruñen: P. Calatayud, 18

Madriilen: Gral. Sanjurjo, 18

## EUSKALTZAINDIAREN BATZARRA

Urriaren 27an Euskaltzaindiak hileroko bere batzarrara egin zuen Donostian, Gipuzkoako Diputazioaren jauregian.

Hona hemen batzarrean erabilitako gaien laburpena:

- Liburuzainak Euskaltzaindiko liburutegira heldu diren liburu eta agerkarien berri eman zuen.

- Gerediaga Elkarteak bere gomita bidali du, Durangon egingo den VII Euskal Liburu eta Disku Azokarako.

- «Domingo Agirre» alaberi Sariaren epaia eman da. «Haurgintza minetan» titulua duen lanari eman zaio saria. Irabazlea, D. Mikel Zarate jauna. Sari hau Bizkaiko Aurrezki Kutxaren laguntzaz eratzen da.

- «Euskera» aldizkariaren hurrengo zenbakia zernolako gai eta lanez hornitua etorriko den, kontu eman da Goizean hartako batzordeak egin zuen zenbaki horren prestaera. Lan hauek argitaratuko dira: F. Etxeberria: «Axularrekin Ikasle»; Lz. de Guereñu, «Más Voces Alavesas»; P. Lafitte, Guillaume azterlariari buruzko istudioa. Euskaltzaindiko Agirien artean, Aditz batuaren lehen zatia, eskola hiztegiaren zatia, Larreko-ren omenez Auritzen emandako hitzaldiak eta beste lan txikiago batzuek osatuko dute zenbaki hau.

- Bilbon eta Donostian Irakasle titulua lortzeko egin diren esamenen berri eman zen.

- Azkenik, Alfonso Irigoyen euskaltzain jaunak mintzaldi interesgarri bat egin zuen, estrukturalismoaren teknika berriak euskeraren istudioari ezarritz.

(Euskaltzaindiko Prensa Bulegoaren Agiria)

## zine

### BILDURREZKO ZINEA

Lehenengo batetan, Hitchcock-*l* buruz idatzi genduenean, suspense eta bildurrezko filmen ezberdintasunaz zerbait aritu ginen. Suspenseko pelikula askoek bildurra sortzen dutela, eta batekoz bestera, bildurrezkoek suspensea.

Garai batez (eta gaur bertan ere bai) eragin andia izan zuen bildurrezko zenbait pelikula, ots, Konde Drakula, Frankenstein eta Fu Man Chu-k adi bidez.

Bildurrezko giro oni, 1922. urtean eman zion asiera Murnau zinegile alemaniarrek. Artean liburutik bakarrik zegoen Drakula kondaren bizitza zineratu zuen, eta arrez gero asi ziren odol edalle, moztu, mamu bildurgarri eta gautxoriak ugaltzen. (Gautxoriak diogunean, ez gara parrandazaleez ari. Banpiroez baizik).

1931. urtean, James Whale-k, Frankenstein pertsonajea sortu zuen, eta mamu itsusi oni begira, jendea gainezka egon ohi zen zine aretoetan.

Zergatik ote?

Arrazoi askogatik, noski. Baina jendea sentipen berrien zain zegoelako batik bat, nire ustez.

Zinegileek, asmakizun berriak atara beharrez aurkitu ziren, eta bildur bide orretan lan eginaz, egundoko anditasuna lortu zuen zine mota onek. 1950. urtean. Ordukoak bait dira Terence Fisher, William Castle, Roger Gorman eta Freddie Francis zuzendariak.

Fisher dugu aietan ezagunena, eta Drakula nahiz Frankenstein pertsonajeak batez ere landu zituen berrogei pelikuletan zehar.

Fisher-ek, filmik sonatuenak aukeratu ditu: «The Cruise Frankenstein», «Horror of Drakula», «The brides of Drakula», «El fantasma de la opera», «El perro de Baskerville» e. a.

Zineko bildur gai au iniorik sakondu nahi balu, Donostian 1965. go zine-jaialdietako bildur filmen kritika irakurtzea litzake, nire usteetan, egokiena. Epai mahaia bat izan zen Donostian urte artan, eta lehen saria Ted Brown-ek 1930. ean egindako «Drakula» pelikulari eman zioten.

Donostiako bildur-film saio aietan ogei pelikula adina ikusi ahal izan zituen jendeak, baina guk ez ditugu guztiak aztertuko. «Nosferatu» eta «King Kong» bi bakarrik baizik.

### NOSFERATU

1921. urtean, Murnauk egina da. Donostiako zine jaialdietan, bestetan baino 25 minutu luzeago gertatu zen pelikula au. Zine jaialdietan zensurak ez ditu nonbait guraisak astintzen.

Duela ia berrogeita hamar urte egina izanarren, arritu egiten gaitu film oek gaurko ikusleok.

Izan ere, arrigarri bait dira Murnau-n kamara erabiltzeko era, doinua, tuntuna edo ritmoa eta aberastasuna.

Nosferatu-ko eszena bakoitza ikustea, bildurrezko zinea mamitza da. Murnau-k egoki erabiltzen bait ditu pertsonaje, gai, banpiro, gela ilun eta abarrak, zinekera oni dagion giroa osatzeko.

Donostiako bildur-saioetan, film au izan zen, kritikalarien iritziz, lehen saridun behar zukeana, baina beste zenbaitetan bezala, lojika auzoan ibili bide zen.

### KING KONG

C. Cooper eta Ernest B. Schoedsack zuzendariek egina da. Peliku-



la onek, gorila bat agertzen digu. Edozein gizakik izan daitezkeen sentipenak dituen ximiotzar bat.

Emakume bat maite du gorila orrek eta egundokoak egiten ditu maitea bereganatzeko.

Abereak, oihanera eramaten du neska, eta errespetoz zaintzen du.

Emakumeak, ihes egiten dio, eta une onetan adibidez ikus daiteke garbiri egileen maisutasuna: New York-eko etxe luzeen gainetik doazen egazkinak gorilaren eskuetan apurtzen azaltzen diren eszenan, alegia.

Abere onen maitatzeko era ere, oso berezia da, eta bildurrezko pelikula izanagatik, humanismoz beterik dago.

Ez da arritzekoa beraz, Europan egin zaion arrera ona. Donostiako 1965. go zine jaialdietan ere, oso txalotua izan zen.

Bildur arlo au bestetik, maiz lotu ohi da «ciencia ficción» delakoarekin. Nire ustez ordea, alegiazko gai au, zabalago artu behar dugulakoan nago, eta urrengo batetan, oni buruz ere zerbait argitaratuko dugu, bere erru eta guzi.

XABIER UNANUE

## Diskoak

Trikitixa gogozko duen edonorentzat izan ditezke onak bi disko aukerak. Txilibrin eta Balbinorenak alboka, pandero eta dultzainaz laguntzen dio auspoari.

Zumarragako trikitixa berriz, oso ezaguna dugu. Nahiz eta entzungarri izan, akatsa latza dute («Columbia» etxean ohi den bezala) bi disko aukerak, Euskal musikari erdal azalak jartzen dizkiotela eta azala ez ezik, baita erdal itzak dituen «habanera» bat edo beste ere erantzen direla diskoan bertan. Euskal joñuak behar ote du, bada, erdal agertzetik ondo saldu ditezkeen?

J. A.



## TRANSPORTES

# azkar

ERAMAN - EKARRIRAKO KAMIOTU AUNDIAK

Barcelona, Zaragoza, Valencia, Madrid, Oviedo, Gijón.

Donostiatik egunero:

Iruña, Bilbao, Gazteiz, Jerez de la Frontera, Gatziz, Aizcante, Murcia, Cartagena, Granada, Almería, Santasder, Valladolid, Zamora, Palencia, Salamanca-ra.

Astean Iru aldiz:

Sevilla, Lugo, Coruña, Orense eta Vigo'ra.

Carretera Gral. a Hernani - B.º Ergobia - DONOSTIA

Telefonoz: 458913 eta 459723

Aptdo. 1381

## Satrustegiren Hitzaldiak

Deustuko Unibertsitateko Euskal Kultur Mintegiak Filosofia eta Letretako Fakultadearen lankidetasunez, «Euskal Etnologia eta Etnografia»-ri buruzko ikastaro bat antolatu du.


Ikastaro hau J. M. Satrustegi jaunak emango du euskaraz.

Egunak: Azaroaren 27-tik Abenduaren 1-arte.

Ordua: arratsaldeko 7,30-tatik 9,30-etara.

Lekua: Deustuko Unibertsitatean.

## MAI-ONA



## SAGARDOA

# EUSKAL MUSIKAREN SUSTRAIA

## mahain inguru baten arian

Goian ezarri dugun (eta Tolosan ospatu zen mahain inguruaren arian jarduteko asmotan geranez) tituluar argi apur bat eginaz hasiko gera. Bestelako, erderatik euskarara itzultzerakoan sarritan gertatu ohi den, tituluak artezki zer adierazi nahi duen jakin gabe gelditzeko arriskutan bait gaude eta, horrela, gure kasurako, zeri zuzenki lotu behar gaitzazkionaren ezjakinean.

Titularen ulergaitasuna, bestalde, inon egotekotan «sustraiak» hitzean legoke. Aipatzera goazen Tolosako mahain inguruan, berriz, hitz hau gaztelaniako «esencia»-ren itzulpen gisa eman zitzaigun. Beraz, nolabait, eta nahiz, beharbada, sustraiak hitzak beste bidetarik gure pentsamenduak zuzendu, filosofi alorreko kontzeptu edo adierazkia zekarren edo zekarkeen. Gure abesti eta musikaren erro historiko guzien azpian, funtsean, aurkitzen zenaren bila abitzeko bideak urratzen zituen. Hots, gure abuzuz, ulergarriago den beste era batera galdera eginaz, honelatsu adierazi zitekeen: Zerk egiten du edonun eta edonoizko musika delako bat euskaldun?

Carmelo A. Bernaola, Francisco Escudero, Agustín González Acilu eta Rodrigo A. de Santiago izan ziren mahain inguruan bildu zirenak. Julio Caro Baroja han izatekoa bazen ere, agindu zenez, ez zen agertu. (Bidenabar esan dezagun mahain inguruaren kaltetan, edo hobe, galean, ez azaltzea. Mahain inguru hartan musikari ez zena bera bakarrik bazen ere, ez bait zen, gure ustez, beharrezko, ezta egokien, beharbada, hala izatea, gai hartan hitza izateko, geroago adieraziko ditugun arrazoiengatik).

Euskaldunok «gure» deitu izan ditugun musika, musikari eta musika tresnak baditugu. (Zergatik gure diran galdetzea beste kontua da. Hain zuzen, mahain inguruak aztertzea zuen kontua bera). Bertsolariek aipatuak hasi gitezke. Txalaparta, txistu... etab. instrumentu zahar. Musikan bertan gure gure ritmoez hitzegiten da. Francisco Escudero jaunak areago joaz, balleta sortzean euskaldunok izan genuen zerikusia eta ikutua agertuko zuen. Gure musikariaren zerrenda, gehiegi ez bada ere, zerbait luza daiteke. Rodrigo A. de Santiago saiatu zen musikariaren zerrendan. (Guk hemen ez dugu ez zer erantsirik, ez zer kendurik, musika gaietarako gure ezjakintasuna aitortzeko prest bait gaude).

«Gure» guzti hoi berri eman ondoren, horien jarraipena lortu behar dugula esaten digutenean erabat konforme gaudela, ez dago zer esanik. Hau, izan ere, euskaldun izaten jarraitu behar dugula esatearekin hortxe nonbait paretu daiteke. Eta honek ez digu gure musikaren (eta «gure» hutsaren) esentzia aurkitu nahi dugunean laguntza gehiegi zikorik ematen. Orain artean egin den musika era bat edo batzuk aldarera jaso behar ditugula eta gurtu Ezpada esan nahi behintzat. Zismatikorik ez dut uste, orduan ere, faltako litzaigukeenik.

Eta bat, zihurrenik, beste askoren artean, Agustín González Acilu. Berak euskal hizkuntzaren hitzen hotsez eta hitzen arteko joskerenez musika bide berri bat urratu nahi du. Eta baita hori ere euskal musika izango litzaiteke. Agustín González Aciluk ez luke hontaz zalantza gehiegi egingo.

Egun gure artean dugun hainbat abeslarirengana hurbilduko bagina, guztiak euskal musika egiten ari diranen ustetan aurkituko genituzke. Eta orain ez naiz abesti zaharrak eta antzinako doinuak jasotzen ari diren bezala bereziki ari, haize berriez, usu haize arrotzez, gure abestia aberastu eta indarberri nahiez dabilzanetaz baizik. Ez gure ritmo, ez gure musika tresnaz, ez gure musika joskeraz baliatzen dira horiek. Baina, beraien euskaldunak dira, euskeraz abesten dute eta, besterik gabe, euskalduntasunaren esentzia irabazi uste dute beren abestientzat. Mahain inguruan planteatu zen honelako zerbait baita: «Elurra mara mara ari da...» musika euskalduna ote? Edo egun hain modan dagoen «Gurea da-ta...» delakoa?

Carmelo Bernaola-k baietz aldera erantzuten zien galdera hauei edo erantzun zitekeela behintzat ikusi uste zuen. Berarentzat musika bat euskalduna den ala ez esateko kultura osoaren zabaleroari begiratu behar zaio. Euskal gizonak bere «izpirtua», «arima» barenegatzen dionean da musika bat euskalduna. Kontuan izanik «izpirtu» delako hau mendeetan osatuz joana dela eta dohala. Horregatik gaur-gaur ere «izpirtu» hau nola eratzu doan da kontu eta kontextu horretan, eta kontextu horren zerbaitzutan, bakarrik, adieraz dakioko musika bati euskalduntasuna.

Zer den «izpirtu» hau?

—Deus ez, —esango zuen González Aciluk, musika egiteko ere konkretu bat ezik.

—Deus ez, —esango genuke geurok ere. Haragitze orotatik landa haragiturik jarri nahi baldin bada, deus ez. Antzinako oroipen, laudorio eta imitazio hutsetan jarraitzei arazoak damaion deus ez. Gaur egun dadukagun egoera parral, eta zenbait kasutan zital hontatik aparte jarri daitekeen deus ez. Euskalduntasuna ez da egoera konkretu, une berezi, eta zabarkeria orotatik aparte dagoen esentzi gordea. Arazo hau, ordea, degonezker garbi dagoenez, ez da musikariena soilki. Tolosako mahain inguruan margolari eta irudigile zenbaiten izenak aipatzera koan ez zen besterik esan nahi. Musikaren arazoa, euskal kultura osoaren arazoa da, hots, euskal gizonok daramatzigun ekintza ororena. Eta arrazoin honexegatik genion lehenago ez zutela zergatik musikariak dohain berezirik ukan mahain inguruan erabiltzekoa zen gainerako. Eta ez zuten. Esentzi baten bila abia eta bakoitza iritzi desberdineko izatea ez da, hain justu, birtute bat, zuzenegi ez planteatu izanaren ondorio baizik. Euskaldunok nik uste jakin behar dugula eta bat etorri zerk egiten duen ekintza bat euskaldun, zer hori gauza bat izango ez bada ere.

Nolabait, eta bukatzeko, orain 5 urteko galdera istilutsu hura berpiztu beharko dugu (nahiz, nik uste, hiltzea ez beste gauza oro gertatu zaion berari): Zergatik eta zertarako euskaldun? Ez, noski, esentzi filosofiko bat noizbait, nunbait eta nolabait (garai bateko harri famatuaren antzera) aurkituko dugunaren ustetan, euskalduntasuna egina eta egitekoa, emana eta irabaztekoa, lortua eta neurri handi baten lortzearen kontura gaitzen baizik. Euskalduntasuna, galdera bat eta erantzunaren bila, lan egitea delako. Orain artean eman diren erantzunen haria eten gabe.

JOSE RAMON BELOKI

## BLAS DE LEZO

EFXE GINTAN BAUKAZU SAGARDO, ARDO GAIN-GAINAKOAK  
ETA EBARI GUTHEGATIK

Blas de Lezo Kalea, 6  
Urrutizkiñak: 41 20 05

DONOSTIA

## ARTE

# Salvador Dali: Merkatari ala igerle?

## (Pintorearen aztertzeke oharrak)

1.—DALIBEN BI ALDERDIAK

Aspaldi da Salvador Dalí (Figueras, Girona, 1904) notizia, mundu guziko pintura alorrean. Eztabaidatzeko, komentatzeko, txalotzeko nahiz zapuzteko, baina notizia da, bai.

Egunotan, Barcelonako Sala René Metras delakoan 55 aguafuerte agertzen ari da, zeinek bide ematen baitute haren obraren balantze eta komentario historiko-kritiko bat egiteko. Obra honek, bestalde, ez du inolaz zerikusirik Dalí-ikusizunarekin, bai ordea artista plastikoaekin. Alderdi hau interesatzen zaigu, nagusiki; zeren besteak, ikuskizun edo subkonkizientearen misterioen agertzeilea ezin baitugu hemen aztertu, tokirik ezean.

Dalí, bere haritik zintzo doalarik, Miró baino programatuago zaigu agertzen; honelaz gara lehenik ohartzen agerketa hau ikustean. Zintzo darai Dalí Freud eta Jung-en psikoanalitik theoriei eta nola deklarazioetan hala pinturatan du baieztatzen Reich eta Marcuse «aprobetxategi» batzuk beste-rik ez direla, marxismoa eta psikoanalisisa ezkondu nahi baitituzte syntesia malurus batentan. Hala baieztatzen dute, eta herriro diot, agerturiko obrak. Ximu-gizonaren, itxuraldatu gabeko haragiaren mundu izugarri eta primarioa digu baieztatzen haren hizkera lasai eta jarioak, zoro eta lotu ezinezkoak. Eta beti bezala dibujo ezin hobe batetan oinarriturik duen bere hizkera. Dibujotik lanean —Carlos Areán-ek dionez— ez da hura bezalakorik Españian, marraren melodiaz eta graphismoaren fantasmenez. Agian inor jazarriko zaigu esanaz, kolore berdin eta bakarrek oihal askok, dibujo koloreatu dirudiela. Baina dibujo koloreatu nolakoa, zein kategorizatua?

Ez pintore komertzialaren kolore erraza, baizik XV mendeko florentinaren edota El Boscorena, esate baterako. Bai baita Dalí pintatzen nahi duenean, eta nola gero! Bere karreraren haseran bere «Mujer a la ventana» pintatu zuen (ez da denbora asko kuadro hau ikusi dugula San Telmo museoko «El mar en la pintura española» agerketan), kuadro horretan, bada, ixipukadaren arrastoa emozio eta bizi handikoa da. Ondoren etorri ziren haren «Kristoak» eta «Madonnak» azkarrak eta kromatismoa eta pintura onaz osatutak, haren pintura psikanalytikoa, simboliko-erlujoso ikuskizunak. Esan beharra dago, bada, izan daitekeela Dalí, nahi badeza, dibujante den bezain pintore paregabea eta hala agertzeko usadiorik ez badu, esan nahi duena adierazteko horren beharrik ez duela uste duelako da. Hona, bada, Dalíren arazoaren bihotza.

2.—DALI, MERKATARI ALA IGERLE?

Anitz mintzatu izan da Dalíren pintura-hizkeraren balioaz, hain landua eta nahasia delarik. Anton Artamendi ene lagunak, Picassoren ehunurteburua zela eta, asteakari honetan bertan idazten zuen, arbuioz edo, Dalí ez zela «genio» bat, malagatarra den antzera. Eduardo Txillidak egiten zidan behin batez, Salvador Dalí alkandora-saltzaile ederra zela. Nik, guzi horietaz gainera Salvador Dalí pintore on bat eta igerle bat ere dela uste dut.

Dalí ez da, egiaz, Picasso handia bezalako genio bat; baina ez da pintore merke eta komertzial bat ere, Dalí merkatariaren barnean, han da Fortuny, Vazquez Diaz, Vermeer eta Raphael-en maitalea ere. Salvadorrek, katalan saltzaile izanaz gainera, bere mundu surreal edo prerreal saldu digu eta eskaini egunen batez izan daiteken errealdade baten aurreko ametsa eta susmoa. Hizkera hori ontzat hartua dute kritikoek eta herriak ere, bere bizitze historikoaren agiritzat. Haren hizkerak, gizonaren



Dalí: merkatari ala igerle.

hari eta alderdi bat aurkitu du, eta errealdadera -hurbiltze baliozko izan dela deritzat. Synboloen eta ezaugarrien bidez eriden edo idoro duen errealdadea, da gure artean zebiltzen mytoak objektivatuz. Myto horiek berriz, zerikusi handia dute gutariko bakoitzarekin eta gure izate sakonenarekin. Hark bildu dituen elementu, gauza eta jarren ikustatzek nahiz gogaitu, harritu nahiz haserarrakiko gaitu, baina beti emango digu bere mundua hondorik gabeko segurtasun eta idurimenez.

Bestalde, ezin dugu ahanzi, mundu guzian abstrakto joera zenean, Dalí bere mundu lineal, realista eta figuratiboa eutsi diola eta (Miró, Max Ernest, Tanguy eta beste zenbait lagunekin) errealtatara hurbiltzeko baliozko bide bat ireki zuela. Bide bat diot, beste anitz ere balitekeelako, noski.

Estetik-aldaketa guziaz zintzilariak dira, hala dio Oteizak bere «Ley de los cambios» delakoan, baina lot-uneak ere badira. Hauetariko bat liteke Dalí. Arte aretoetan eta aldizkari espezializatuetan berriki agertzen hasi den morfologia-sail horretara (realismo berria, magik-realismoa, simbolismoa eta auzi-hizkuntza...) garamatziten zubi-lotura horietariko bat.

Gutik bezala du ezagutzen Dalí flamenka eta italian pintura eta

aldi berean bere inguruko kultura. Alde batetik haren hizkera simbolikua ez da ulerterraza kaleko jendearentzat, baina beste aldetik, haren zentzukoitasunak, eragibetasunak eta begikotasunak, XX mendeko gizonagana hurbiltzen du.

Aurtengo udan egiten zidan Rotterdamko museo berria ikusten ari ginela dibujante euskaldun batek, Dalíren kuadro batzuen aurrean: «Ez gaudek genio baten aurrean, baina bai pintore handi baten aurrean». Dalí klasiko da eta, aidi berean, modernoa. Dalí, merkatari eta igerle alderdi biek, notizia da munduan, baina gaur Barcelonan bereziki. Haren iduriak, hizkerak hipipide handiak eman ditu. Pintore honi muzin egin dion askok, segur nago, ez duela ezagutzen behar beste haren obrarik. Aztertu ala, alderdi berriak ikusten diotkat. Urri dira, ordea, haren reproduzio eta hari buruzko liburuak, eta honek zailago egiten du artaz iritzi bat ematea. Haren obra, gehienbat, estranjerian dago; baina aurki irakitzeko da Figuerasen Dalí-museoa, edonungoen atseginerako. Ni ere joatekotan nauze ikustera eta emanen dizuet ene iritzien berri, gogokoa baitut Dalíren hizkera eta gauza asko ekartzan dit gogora. Zuri ez ala, irakurle?

EDORKA KORTADI



arístegui hermanos

ZORUAK ETA ESTALKIAK,  
PERSIANAK, ATEAK, ETA ABAR.  
GARBITOKI ETA ITURKINTZA GAIK.

ERAKUSTOKIA:  
FUENTERRABIA, 19 - URRUT. 11459  
DONOSTIA

## ORMAZABAL - DAR DUNIXI

ETXEGINTZA TA ETXE - TXUKUNKETARAKOAK  
URALITA ORDEZKARIA

TOLOSA  
Urrutizkiñak:  
Etxekoa 65 19 66  
Landelakoa 65 19 33

URRETUXUA  
Urrutizkiñak  
Landelakoa 67 17 84

ERAKUSTOKIA: Tolosa'n - Zumalakarregi, 7ºn

## baltan

## HERIOTZE

Gure adiskide zintzo Ignazio Iturria Zabala jauna, Elizondo-ko Mitxeltoneko Nagusia Jaunak bereganatu du. Aspaldixko hontan erixko zabilen, gaitzak zaukan menperaturik eta azkenean bere ordua irixi eta Jainkoak eraman.

Euskaltzale jatorra, denen laguntzale eta ongile, denek maite ginuena. Goian Bego. Gure dolu-minik biziaren familiari.

## MUTIL-DANTZA

Berriz ere Arizkundar mutil-dantzariak ari izanak dira eta oraingoan Bizkai ko Basauri-ko herrian. Joan den Urriaren 15-ean euskal dantzarien bilgure haundi bat ospatu zuten herri hortan, Euskalherriko lau lurraldetako dantzari-taldeak ari izanak direlarik: Gipuzkoatik bi talde, Zumarragakoak eta Donostia-ko "Argia"koak. Bizkaitatik Bilbo-ko hiru talde. Zuberoatik Aterrateko dantzariak. Nafarroatik Ituren-go joileak "Zampantzar" deitutakoak eta Baztan-ko arizkundar mutil-dantzariak.

Goizean dantzari talde guztiak Basauri-ko karriketan barna itzuli bat eginik gero herriko plazan dantzarien agerpen nagusia egin zuten denek beren dantzak erakutsiaz.

Besta guzietan bezala bazkaria izanduz dantzari guzien elkarte zoragarriena, 190 bazkaltiar Euskal-Herriko lurralde guzietatik denak han bildurik, kantuz, dantzaz, bertsoetan eta solas atsegingarrietan, bai gauza ederra eta denek maitea gura. Bazkalondan berriz ere herriko plazan talde guztiak beren saioa eginik, holaxe amaitu zen Basauri-ko dantzarien eguna.

Baztandarrek izugarri kontent etorriak gara Bizkaia aldeko alderditik, jendeari gustatu zitzaizkien gure dantzak eta holaxe erakutsi zuten beren bozkarioa esku-zarta beroak dantzarien ohoretan eginik.

Baztan aldetik milaka goraintzi gure lagun bizkaitar hoieri.

## FERIAK

Elizondo-ko Urriko feriak ospatu dira deus makurrik gabe Jaikoari esker. Aurten ilabetearan 27-an ukan ditugu eta ez denbora ederrenekin. Urriko ogeitasei lehenbiziko egunak den denak eta utsik egin gabe, eguraldi ederrakin, eguzki bero, aizego goxo eta euri tantik ere egin ez duelarik iragan zaizkigu eta horra hor ogeitazaz-pigarrenean, "porrot", euria nasai-ki egun guzian, argistetik ortoka eta kazkabar erauntsiekin hasi zitzaigula. Gero eguzte ere euria auserki, gozoa eta epela bai eta kanpoarendako mesedegarri. Euri ona bai baina jendearen harat-hunetak egiteko ez ain ona, merkatuko aziendarendako ere ez zagon batere atsegin, holakoetan kalte baño probetxu gehiago izaten bait da.

Halare ferien izen horrek arrakasta haundia izaten bait du, jendea etortzen da Elizondo-ra beti ere egun on bat iragaitako esperantzarekin. Urtero bezala hemen ikusi ditugu gure artean mugaz-bestaldeko anai eskualdunak baztandarrek batean eta bai Ultzama eta Bidasoko jendeak ere. Merkatuko plazan bazen azienda eta denek diotenez klase onekoa eta prezioak ere arabera hortara. Lur lanetako eta belar ebakitzeko mota guzietako makinariak ere erakutsi zituzten eta erosi nahi zuenak aukera ederra bazauka.

Aurten baginuen jendeak aunitz maite duen kantaldia; bertsolariak. Antxitoneko trinketea eta jendez leporaño beterik, bertsolari besta bat egina dugu. Hortan ari izanak ditugu lau kobleri on eta arrakasta haundikoak: MATTIN, LASARTE, AGIRRE eta LAZKAO-TXIKI. Gure bertsolariak ordu terdiz ehun bertso eginik entzule guziek loria-urrik utziak dituzte. Lau bertsolari hoiek beren balioa ongi erakutsi digute. Jendea kontent dago.

Dantza lekuetan gazteria ederki jostatu da eta gehiagorik gabe holaxe joan zaigu aurtengo ferien eguna.

M. IZETA

## azkoitia

## EUSKAL KULTUR ASTEA

Lehendabiziko aldiz, aurten eratu da gure herrian Euskal Kultur Aste bat. Herriko elkarte guzietatik eginik antolatua izan da. Aski otopo garaitu beharra izan omen dute antolatzaileek, baina kontuak kontu egina eginda dago eta ikusi dugun bezala azkoitiarrok zeharo ondo erantzun dugu. Aste osoa ederki eratu azaldu ziguten. Batetik historiari buruz, XIX mendean Euskal Herria zer nola arkitzen zen garbi ikusi ahal izan genduen, hots garai hartako antolamenduak zer nolako taxuketa zeuken, Europa-ko zenbait naziok Euskal-Herria zer eragin izan zuten, industrializazioak ekarri zituen aldaketak etab. arras ondo azalduaz.

Euskeraren batasunaz ere zerbaite jabetu ginen, eta garrantzi handiko gauza dela derizkiogu eta oso beharrezkoa gainera. Bestalde euskal zinea ere ikusi genduen kultur aste hontan. Ama Lur hain zuzen. Hauxe kontrastez jositako pelikula! Benetan burua zeharo akituta atera ginen, zer pentsatu ugari azaltzen bai zitzaigun bertan. Euskal lehen gizarteak ere ihardun aldi bat entzun ahal izan genduen, lehen gizon haien bizimodua eta artea pixka bat bederen ezagutuaz. Hitzaldi bat deuseztatu beharra izan omen zen, zera Olerkaritza eta Bertsolariari buruzkoa, itxura dagoenez hizlariak ez zuen etortzerik izan. Azkeneko bi egunetan kontsajuean euskal liburu eta disken azoka ikusi ahal izan genduen. Liburu eta diska anitz saldu omen da eta ez gaitu harritzen jende asko ibili bait zen azoka inguruan.

Jaialdi berezi bat ere antolatu zuten, larunbatean gauean, josta lekuan, guretzako ez ezagunak ziren hainbat dantza —Nafarroako dantzak— ezagutu genituen, Europar ezaguna den Argia euskal dantzari taldearen bidez. Abeslariak ere gure artean genituen, Txomin Artola eta Joxe Mari Zabala eta baita Martitxe bailarako trikitalariak ere. Herri Meza eta liburu eta disken azokarekin eman zitzaion bukaera euskal kultur aste honi. Jendetza ugaria sumatu dugu bai hitzaldietan bai azokan eta bai jaialdian ere, gure herrirako arras baiezkoa izan da aste hau, esan nahi handia bait dauka. Antolatzaileei zorianak ematea bidezkoa dela derizkiogu zeren ekiera bat izateko oso ondo atera baita dena. Eta bukatzeko uste dugu adierazi beharrezkoa dela zera alegia, bai jaialdian eta bai azokan atera diren sokak ikastolarentzat izan direla.

## UDAZKENA

Udazkenean gaude. Ez da ala? Denok dakizue eta ikusten duzue zenbat orri erortzen den zuhaitzetatik, ba gure herrian aspaldian zuhaitzetatik ez ezik beste nonbaitetik ere erortzen dira ba.

## TXINPARTAK

## eibar

## DANTZARI EGUNA

Il ontako 5ean ospatu da Eibar-ko V. garren Dantzari eguna.

Beti bezela, onek gauzok ondo egiten dira Eibarren eta olan urte eban. Txistulari taldeak esnatuta danok, euron soñu gozuekin, igo genduan Arratera. Bertan, ildakoengatik Meza bat izanda gero, be-deinkatu zar ikurrin berria, Eibar-ko Club Deportivo-ko buru dan andreak M. Carmen Izaguirre ama besoetako egiten zuela. Meza onen bitartean, Zumarragako "elidantza bat egia zan, sagara orduan, eta txistulariak, aurten ikasitako bi edo iru eresi jo zituan.

Au bukatzean, Arrateko zelai ederrian, dantza aldi txiki batean erakutsi dira. 1972 urteetan, beste erri batueta taldeei esker, Kezka-atera dituan dantza berriak: Guipuzkoako Brokel Dantza ta Minuetoa, Lekeitioko Kaxarranka ta Jaurrietako «Eaurtako Axuri Beltza». Dantza sorta (azkenengo urteetan sarritan ikusi degun) Estellako La-

rrai Dantzakin bukatu zan. Baiña bai benetan zoragarria, txistu eta tanboliñez agurtzerakoan, ainbat leengo eta oraingo dantzari, bai nagusi edo ume, fandango eta ariñ-ariñ dantza egiten ikuste.

Azkenez, Eibarko Dantzari izan eta diranen artean, anaitasunezko bazkariaren ondoren, leengo dantzari, oraingo maixu, eta urte asko dantza egiten daramaten gazteei gure errian grabatutako insinigi eman zitzaizkien. Ala eskertuen artean, taldearekin nolabait urte emanekin aurkitzen diran, Eusebio Larrinaga Bermeoko txistularien jatorriko, Zarauzko Euskal Jai-ko laguntzale Izaskun Zubiña. Oñatz taldeko Lourdes Idoia eta andereñoak eta Deportivo-k Jose Lascurain jauna, aurkitu ziran.

Bearrezkoa da guzti au, Gregorio Santa Cruz, Jose Luis P. Sarasqueta, Juanito Larrinaga jaunei, eta auekin batera, Eibarren ainbeste lan egiten dauden laguntzarekin, danori esatea. «Erriaren izenean mila esker eta segi aurrera».

## KERIZPE

Atano III pelotari izanari, leengo ostiralean, Kerizpe gizartearen, afari baten bitartean, omenaldi txiki bat egin zaio. Maai ona eta amore ona beti bezela. Zorionak Atano! Zorionak Kerizpe!

## GAZTANERRE

Antxiña-antxiñatik, Gaztaniere jai urratzean (Arimen eguna) erri osoa apaintzen da gurea dan jai au ospatzeko. Azkenengo urteetan, eztabaida gogor bat sortu da, leengo edo bigarren astelenekoa dan jai au jakitzeagatik, baiña gure nagusiak esaten dutenez, bigarren astelenean egin da beren gastetan: Meza arimegatik eta maai ona gortzagatik. Neretzat, erabakirik onena askogatik, astelen guztiak ospatzea da, ta... ez naiz ni bakarrik uste au duana.

## AGURRA

Gure agurrik beroena Argentina-ra dijoan Koldo Ormatxea jaunari eta bere emazte Maritxuri. Ziur nago, Euskal herriko berotasuna «Etxe maitean» aurkituko dezuela. Laster arte!

Kruzetatar Odile

## zumaia

Azaroaren 5eko Zeruko Argian eta Zumaia berrien txokoan arituta irakurri degu «Olarruren» idazlan bat. Gauza asko ditu argitu beharrezkoak eta ortara gatzoz. Egia esan batere eztabaida luzetarako irrikarik gabe; ez gatzoz «polemikara».

Onela, irakurleak bi alderdiak irakurrita, ikus beza zer eratarau gauzak epaitu.

Orain baiño leenago errian bertan zabaldu zituzten orri batzuk naiko naastuak; zenbait alderdikeria ere bai tartean!

Orduan nola-nai ere erri barruan geldituko ziran noski orri aiek. Orain ordea, Z. A. aldizkarian argitaratuaz zabaldu dira Zumaia-ko ikastolako kontuak. Lotsagarri eta negargarri diralako etxe-zokoan gordetako bear genituzke eta ez suari egur geiago botatzen saiatu. Argitaratzea naikoa ez dala, izenordeko argitaratu ere: aurpegirik eman gabe «Olarru» izenpean izkutatuturik.

Zeruko Argiako idazlanean esaten diranak ez dira egiaik, osorik artuta beintzat; ez dira egia osoak eta esan oi dan bezela «erdizkako egia, gezurrik beltzena baiño okerragoa da».

Ondo minduta gure seme-alabak ikastolatik atera ditugu, bai, baiñan ez esaten dituzun arrazoiengatik... beren iritziak ikastolan ezarri ezin zituztela konturatu zirenean...». Ez, ori ez da orrela! edo, ikastolako «izena» dualoa bialdu bear aldituqu gure aurrak naiz eta «izana» bestekoz dala ikusi? Nun da askatasuna?

Onela izan zan: Andereño-laguntzaile berrien auteskunderako Batzordean, bi talde sortu ziran, au da, gurasoak berari egokien iruditzen zitzairen andereño-laguntzaileak aukeratu nai zituztelako ta bestetik ikastolan ziran andereñoak

aukeratu nai zituztenak. Garbi ikusi zan zein ziran andereñoaren alde eta zein gurasoenak ta auteskundera eginik, auek izan ziran alde aundiakin irabazi zutenak eta orduan lanean gogor jardun ondoren Batzordetik irten ziran lendakaria ta oarpalaria (au ezkongai ta gazteen ordeko) «beren iritzia ezarri ezin zutelako», ta gaur, gaurko ikastolan jarraitzen dute.

Geroago, Gurasoen Batzar-Nagusia bildu eta an guraso guzieren artean auteskundera egin bear duanean, zer gertatu zan? Zergatik ez ote du esaten «Olarru-k»?

Irakurri eta jakin dezala Euskal herri osoak: Ikastolako umeen gurasoak Batzarrean bildu bear giñalarik, gazte talde bat sartu zan gure artera. Gogorkeriz sartu ere, iñori baimenik eskatu gabe!

Ea zer dan, bestela, gau artako jokabidea! Gurasoek euren erabakiak artu bear ta gazte-taldea ezarri indarrez; gazte geiago sartzeko baimena eskatu gurasoei. Eztabaida txiki baten ondoren baiezkoa eman zitzairen eta orduan sartu zan egundoko gazte-taldea danak ikastolaren «laguntzaile» izenean.

Gure seme-alaben eziketa eta etorkizuna eztabaidatzen eta aztertzen ziran ezkerre, gurasoek genduen itza eskubide osoz; arazo ontan beintzat bai. Orregatik, gazteak sartu ondoren, baimena eman zitzairen entzuteko; baiñan ez itzegiteko eta askoz gutxiago beste seme-alaben eziketa erabakitzeko.

Eta an gertatua? Zergatik ez du esaten «Olarru-k»? Gazteak, gurasoen gainetik jarriaz eta euren patriketatik orriak atereaz, an asi ziran irakurtzen bai batetik eta bai besteak umeen eziketarik nolakoa izan bear zuan. Orrenbeste al dakeite gaurko gazteek? Nun ezi dira? Ikastolan?

Zergatik ixillean gordetzen du «Olarru-k» gazteen arrazoi bide au: «Eskerrak, utzi diguzuen sarrera bestela ateak autsi eta sartuko giñan!»

Zergatik ez du esatean «Olarru-k» Batzar onen bukaera?

Gurasoek Batzarrean beren seme-alaben eziketa aztertzen ari ziran, eta ari giñan. Eta orra bat batean itzik gabe gelditu! Beste batzuk asi ziran gure seme-alaben eziketa ta etorkizuna nolakoa izan bear zuan erabakitzen...

Guk gure seme-alabentzat zer nolako eziketa nai degun, ori ere besteak erabakitzekotan, zertarako giñan gurasoak an?

Bazan garrantziko gauzarik Batzarreko. Guraso guztion iritzira erabaki nai ziran arazoak. Baiñan etzitzaigun erabakitzen, ezta ere esaten, laga.

Guraso artako auteskundera erabakiko zana beren pozgarri etzutelako, moztu eta puskatu egin zituzten Batzarra eta eragozpenak jarri auteskunderako.

Jakingo du noski ori dana orrela gertatu zala, baiña ixildu egiten du «Olarru».

Esan bear zuan, egi-zale izatekotan guraso geienen orduko jokabidea: Gazteen indarkeria ikusiaz, Batzarretik irtezea erabaki zuten. Erriko Erretore jauna aurrena zala, Batzordeko geienak irten ziran irutik bi, beintzat bai, irutik bat gertatuz.

Au alda «Olarru-k» esan nai duana bere idazlanean «...beren iritziak ikastolan ezarri ezin zituztela konturatu zirenean guztia bertan behera utzi eta alde egin zuten...»

Zergatik ez du esaten «Olarru-k» auteskundera bat eragotzi zutela, baiñan naiko agerian gelditu zala guraso geien-geienen iritzia?

Bestalde, joanak joan, aitortu bear zuan «Olarru-k» guraso geienen esana: «Ikastola sortu zaneko asmoak eta jokabideak zearo aldatu rik ikusten ditugu, eta ez da au guk geienok nai degun ikastola. Guk asierako eran jarrai zezan zailegiñan egin ditugu! Eta ez diogu iñori eragozpenik jarriko, be-raiei atsegiñ zaien ikastola anto-

latu dezaten». Gu ez gera iñoren cztopo izango!

Zergatik sartzen da orain gurekin? Ain ziur baldin badago zuzen jokatu duala zertan sartzen da pakean daudenekin eta pakean lagatzen diegunekin?

Eta arzaio guztien sustraia nun ote dago? Arrazoi guztiak berekin izanarren ere, bein gurasoen konfiantza galdu ezkerre, egin ote di-teke ezer onik indarrez? Eta ori gertatu da: Gurasoak konfiantza galdu dute.

Euskaltzale «izena» eta «izana» aipatzen ditu «Olarru-k». Bera ote da zer dan euskaltzale izana eta izen utsa epaitu ta erabaki bear duana?

Ikastolak kanpotik naiko eragozpen, eta etsai ez bagen bezela, barruan ere eztabaidak, borrokak eta ixkanbillak jartzea ote da benetako euskaltzaletasuna?

Eta noiz sortu dira itxilluak? Gurasoak, beren seme-alabak Ikastolara bialdu, eta ustekida osoan geundenean? Ala gure seme-alaben ezieraz kezkatzen eta arduratzen asi geranean?

Ezikeraz eta Ikastolaz arduratu gabe jarraitu bagenu, etzan itxillurik sortuko; ziur egon ezetz!

Baiña nun dago errua? «Olarru»-ren idazlana itzez-itzez aztertu ezkerre beste gauza asko esan ditza-kegu. Baiñan beste gabe ontan bukatzen deg. Naikoa da noski. Euskeraz irakurtzen duan guztiak gure jokabidearen berri jakin dezan. Eta epaitu zuzen.

GURASO TALDEAREN ORDEZKO:  
JON ARANA  
MARI PILAR BEOBIDE

irakurleak  
mintzo

ZUMAIAKO IKASTOLAZ

Nere lagun Olarru: Irakurri det zurea. Zumaian pasatu dana samingarrak da eta ez, faborez, maskararik jarri erria engañatzeko. Gauzak diran bezela esan. Gure ikastolari asiera polita eman zitzaion, umei gure izkuntza, erlijioa eta euskaldun izaten sartzen diran erakusgai guztiak erakutsiaz. Baiñan nik ez dakit nola, euskeraz mingaiean artu eta beste dotriña bat erakutsi naiñan asi dira batzuk. Guraso batzuk, konturatu diranean, ezetz zorrotza eman dute eta beste batzuk ezin esnaturik dabilta oraindik. Gauzak ez beñere esan alderdi batetik bakarrik, bi alderditakoak baizik. Gure errian bi pentsaera sortu dira eta argi itzezin bear da.

J. I.

Gure erria oso gaizki jartzen du Olarruk. Or garbi ikusten da bi pentsaera sortu dirala. Guraso batzuk, ori ikustean, beren umeak ikastolatik atera egin dituzte. Baiñan, kontuz, ez ikastolaren aurka daudelako, pentsaera berri ori garbi ikusten ez dutelako baizik. Zein dira gazteak guraso danen gainetik berak eta berak esateko umeak nola jarri bear diran? Beste guraso batzuk oraindik lozorroan daude. Ondo dago nai duanak nai duan aldetik lan egitea, baiñan engañatu gabe; ez bileran daga ondo dagoela esan eta gero gauzak ezarri. Beste batean, gauzak eta pentsaerak garbi garbi esan.

S. B.

**JOSE ZINKUNEGI'REN  
OPTICA BERRIA DONOSTIA**

URTIETAN LAN OIETAN OITUA


BARRUAN DANAK EUSKALDUNAK

Hernani, 4

DONOSTIA



**Baserriaren alde**  
EUSKAL ETA ERDAL



**Caja de Ahorros**  
Municipal de San Sebastián

Banen baneko azikay  
Ongarri ta abonoak  
Belar Zuloak

Erosi edo berritzeko diru  
aurreratzea

Baserri, lur-tresnak ta abar

Torelavega'ko Perira joan  
etorriak

**DENDA - USTUTZEA**  
JANGELARAKOAK, TRESILLOAK, LOGELARAKOAK  
KRISAILU ETA OIN-OIALAK

Modurik onenean, dirua eskura  
Euskeraz miteatzen da


**AMUEBLADORA COMERCIAL HISPANIA**

Morazan, 14 eta 15ean      San Marzial 12ean  
DONOSTIA      IRUN

**ZERUKO ARGIA**  
**SALTZEN DA:**

**ELGOIBAR**  
M. Gorostias


**EIBAR**  
Angera  
Markina  
Iriondo  
Eguren  
Gisasola  
Barela  
Alday  
Aranburu  
Estanko, 11  
Isasi  
Simon  
Amana  
Uraul  
Urizar  
Siglo XX



**TXIMIST-INDAR SAILLA**  
Departamento ELECTRICIDAD

LANERAKO, BANAKETARAKO TA AGINTZEKO TRESNAGITZA

Aparatos de manobra, distribución y control



**OLIO-INDAR SAILLA**  
Departamento  
HIDRAULICO

GARBE - LAHMEYER  
WUPPERTAL - ALEMANIA'ke  
Etxearen banaketa ta  
teknika laguntza

Banaketa ta Teknika laguntza:  
REX-ROTH GMBH Alemania  
RUHRITAL Sp A Olio-indarra. Italia  
TUROLLA Sp A. Italia


**Goimendi - Automatismo**

**AUTOMATISMO**



Lantegi ta landolak:  
Jolasokietak (Herrera)  
SAN SEBASTIAN  
Urrut. 353840 (7 ari) ta 351860  
Telex. 36173 GOIME E  
Erakusketa eta denda:  
Iparraguirre, 15 - SAN SEBASTIAN  
Urrut. 428082 ta 428625  
Ordezkaritza:  
Eulejo Sardan, 18. Urrut. 226535-36  
VITORIA


**AIZE BEROA SORTZEKO**



INDUSTRIAN  
KOMERTZIOAN  
LANDARE LANGINTZAN  
ELIZAN  
GARAJEAN  
HUMEDADEAK KALTERIK  
EGIN EZ DEZAIZUN  
BEREALA JARRI DEZAKEZU

**MONARCH ERRETZAILLEAK**

FUEL GASOIL, PROPANO, BUTANO ETA GAINONTZEKO  
GASAK ERRETZEKO BAI ETXE BAI INDUSTRIETAN  
MONARCH ERRETZAILLEA  
SALGAJETAN ONENA



**IRUÑAN**  
Navarro Villoslada, 23 Urrutizkiña: 23 52 40

**BILBAON-8**  
Elkano, 33 Urrutizkiñak: 31 73 97 - 43 16 12 - 43 16 16

**DONOSTIAN**  
EUSTASIO AMILIABIA, 1  
Urrut.: 42 35 23 Ext. 88  
Estudio Enparantzan, 1  
Urrut.: 42 02 86



**ERAMAN - EKARRI'ratko**  
AGENCIA

**Transportes A L E**

**EUSKAL IRRATSAIOAK**  
ERRI GUZTIRAKO

Urrutizkiñak: 421369 - 427726  
Iparraguirre, 8 - DONOSTIA

bazkari onaren zarpagarrian  
eta txarraren estalgarria

**LA CASA**  
**DEL CAFE**

Juan Iriondo

San Marzial, 19 - Urrut. 413801  
Donostia



**DEPURACION**  
**DE AGUAS**  
**S. A.**

Ur lanetan eta zereginetan berezia  
edangarri, lantegiko eta igeritako urak gertutzeko  
zikindutako urak garbitzeko.

Urrut. 32 37 00 - 31 00 10 - 32 37 01  
Gordoniz, 44

**BILBAO**



Eibar

## legazpia

IKASTOLA BERRIA

Legazpio ikastolez, zerbait idatzi berriak geran arren, aspaldian amestutako arnas-berrien albiste pozgarria iritzi zaigu eskuetara. Ez da nola naiko albistea. Ikastolako guraso-Batzorde, Andereño, ta ikasleen guraso, denak alkarturik; Ikastola berria egiteko erabaki sakona adierazten digun orritxoak, ain zuzen. (Legazpi Ikastolaren Alde-Ikastola Euskeraren alde) diote erriko sendi danetara banatu dituzten agerkai auk.

Berri au, erri osoan (zabal eta luze) aizatu bearrekoa degula ezin uka genezake. Izkuntzari dagokionez, euskaldun denok barrenko irripar goxoz onartu bear degun deia inolaz ere. Jakintza, eta ezierari dagokionez, erri osoak oparo laguntza eskeini bear diogun erabakia, noski.

Ikastola berri au egiteko, Itxaropen etxadian azpiak erosiaz, urterik-urte ugaldiaz dijoazten ikasle denak, dagozkien lasaitasunez ikasketak egin aal izan ditzaten, zazpi gela, liburutegi, bearkizunetako leku, ta abar, antolatu asmoz dira batzorde, andereño eta guraso kezkatuak. Arazo garrantzitsua benetan, Legazpio gurasoen artean sortu dana. Ikastola bere lekuen jabe izatera iritzi ditekien gai sakona.

Sei urte dira leenbiziko ikastaroak ematen, ikastola asi zala, zazpi gela beteak dauzka gaur-egun. eta denak inoren eskeintzaz artuak. Lau eliz-nagusiko aretoetan, eta iru guraso elkarteak ikastetxean. Ala ta guztiz ere, tokirik eza-gatik, nai izan duten aur guztiak artu eziniak.

Egoera oni erabakia emateko, biderik egokiena erosteka bidez la-reun metro lauki inguru dan etxe azpiak jabetu nai luteke.

Amets au egiztatzeko, diru laguntza lortu bearrak eraginda, dei erriko au zuzendu dute. Ez bai litzeko erostura eta antolaketa aukerak txanponekin agin. Azterketa sakonak egin ondoren, iru millo lauerlekoen igorpenak arkitu dituzte.

Dirutza au dena nola eskura? Au degu betiko leloa. Seme-alaben jakintza eta eziera, eta euskal-izkuntza maitale diran guraso arduratsuek dute itza. Al dan bazkide geiena egiten saiatuaz, el-karte bat eratu. Bazkide bakoitzak bi milla lauerleko (erreztasun osoz) emanaz, diru au bildu ditekien itxaropena dago. Milla-ta bosteun bazkide aski dira iru milloek osatzeko.

Ez ote dira Legazpin ikastaroko seme-alaba, edo billobak dituzten euskal-zaleen artean bazkide oiek osatuko?... Ez ote errian jakintza osatu baten kezkek barrena zultzen dien arduradunik arkituko?

Erne... irakurle gazte, eta urte-tsuok. Gaurko bizikera aurreratu oni jarraitu nai badiogu, garaia da lo-zorrorik esnatzeko, eta errian sortzen zaizkigun arazoez kement-su jokatzeko. Kirola, eta maitakerizko jostaketan bakarrik murgildu gabe, luzatu begiak aurrerago. Ondorenak zer-ikusit aundia bai dauka.

Ez uko egin, etorkizunaren ispi-llu ditugun landare berri auei.

AN-ZAN

## tolosa

JAKINGARRIAK

—Tolosa da Gipuzkoako herririk erdaldunetako. Horrela dio bederen, Gaur-taldeak eginik dadukan estudio batean, eta liburu baten emana «Euskara Gaur», orain dela urte bete edo argitaratua.

—Tolosa da Gipuzkoan gutien hazi den herrietariko bat ere. Honek garai batean ukan zuen bere alderdi txarra, baina gaur baditu beste askok ez dituzten bentaja batzuk ere. Orain izanen da garaia, urbanismoari jaramon gehiago egiteko. Eta jendeak, ahal den guzian, azal dezala bere iritzia, ez-beharrenbat egitera doazenean edo, hauek salatuaz.

Tolosa

—Tolosan egin behar litzake, eta agian egingo da Gipuzkoako Ikastola-Libeorik ederrenetako bat. Jakin Tolosa eskualdeak 50.000 biztanle dituela, eta horri erantzun beharra daduka. Guk uste, erantzunen diola. Hauk danak horrela izanik ere, akats bat bilatzen diogu gaurko ikastolaren egoerari. Akats bat erraz zuzendu leikiena. Gure ustetan Ikastolako gurasoen bilerak erdera soilean egiten dira; guk dakigularik bera izanen da Gipuzkoako osoan hau egiten duen bakarra. Honetan ere Tolosa herri berezia ikusten, duzuen. Herri gehienetan, tipietan batez ere euskara hutsean egiten dira baina herri handienetan ere, Donostia adibidez, lehenik euskaraz egiten da eta gero erdaraz laburpen bat edo. Gainera nik ez dakit nola justifikatu lezakean hau Juntak baina, Tolosako Ikastolako gurasoen artean askoz ere euskaldun gehiago dago, ta familia edo hobeto esan senar-emazte guti, baanen dira bat edo beste, euskaraz ez dakianik. Beraz ez dakit non gauden. Las-kurain Ikastolako Guraso Elkarteak izanen du azken hitza.

—Xegundo Agirre gure «pratikante» esagunak eman berria du, «Diario Vasco» egunkarian, Tolosako zeharkako erregebidetari buruz, bere iritzi interesgarria. Egia esan, guk geuk behintzat, ez gendukean sekulan ere horrelako soluziorik asmatuko, eta ikusten denez lehen ere beste inor ere ez zen ohartu hortaz, ez O. P. eta ez da ere Udaletxea. Beraz jarri du Xegundok irizpide, pentsabide eta ziur asko, baita ere amaika eztabaidarako bidea. Guretzat asken soluzio bezala ematen dun zeharbidetari, era bat ona deritzagu eta mereziko luke norbaitek arduraz estudio batzuk aurrera eramatea (presupuestoak etb.). Baina beldur gara Xegundoren kezkek eta lanak, udazkeneko hego haizeren batek eramanen ote dituen. Dena dela exenplu ederra, injeniadore eta gainontzeko tenikoentzat. Jaso txalo bat guregandik Xegundo, herri arruntak mugiarazten dikik askotan gauzak, baina edozein modutara ere hik azaldu dituk hire kezkek eta larriak. Orok jarraitu behar gendukean exenplua noski.

—Hau kalera irten ordurako behar bada aspalditik hasiak izanen dira euskerazko kursoak eta alfabetatzeko kanpaina. Gu kanpoan gaudelarik ez dakigu, zein harrera ukan duen aurtengo ekinaldi honen. Urrengo batean hobeto enteratuta emanen dugu xehetasun gehiago.

ASKALEKU

## bilbao

Ez dugu sarritan izaten Bilboko berriak irakurtzeko aukerarik Zeruko Argian, eta hutsune hori nolabait betetzeko asmoz natorkizue. Bilbo batek merezi duela uste baitut.

DEUSTUKO UNIBERTSITATEA

Kurtsoan barrena abiatuak garen ez gero, derrigorrezko ikusten dut Unibertsitateko giroari buruz —euskal giroari buruz, hobeto— zerbait esatea.

Deustuko Euskal Kultur Mintegia delakoan langile dabil gazte jendea. Kurtsoa hasi aurretik Patxi Altunak zuzenduriko ikastaro bat eman zen euskal irakasle titulosa ateratzeko azterketei begira.

Geroztik, eta beste urteetan bezala, Alfabetatze ikastaro bat eratu zen. Besteetan baino jende gutiago agertu omen da. Dena dela, oraindik irauten dute lanean, bi taldetan banatuta.

Baina ez dira hemen gelditzen aurtengo eginkizunak. Bada asmo ona ugari gazteen artean. Dirudienez, programa oso bat egingo da aurtun ikasleek aurretik izan dezaten urtean zehar antolatuko diren hitzaldi eta ikastaroen berri.

ETNOLOGIAZKO IKASTARO BAT

Eta programa hori oraindik zabaldu ez bada ere, badugu laster hasiko den ikastaro baten berri. Gaiak Etnologia eta Etnografia izango dira. Jendearen artean harrera ona izango dutelakoan gaude. Holako gauzek, apurka apurka, giro

bat sor dezakete, eta, dudarik gabe, gaurko gazteen artean sortuko badira etorkizuneko jakintsuak, badugu zerbaiten beharra.

Euskal Unibertsitateari begira bizi garenok, pauso aurrerazale bezala interpreta dezakegu aipaturiko ikastaro hau euskaraz izatea. Dirudienez, erabakia hartua dago, bati baino gehiagori min emango badio ere. Aukera bat egin beharra zegoen eta hartua izan da. Nik neuk oso pozik ikusten dut hori. Euskal kulturaren alde lan egin nahi duen Mintegi horrek bere garrantzia eman behar dio gure hizkuntzari eta hori, euskarazko eskolak emanaz bakarrik ez, baizik eta euskara erabiliaz betetzen da, betez ere.

Irakurle, barkatuko didazu euskarari buruz eman dizudan «speech» hau. Beste batean airtuko gara Satrustegi jaunak emango duen ikastaro honetaz. Orduan ikusiko dugu zelako giroa izan duen. Baina giroa jendeak egin behar du. Eta hau ikusteko dago oraindik.

«Deustoar»

## mutriku

APAIZ LANGILLE eta GIZON

Aurrez iragarri bezela, GOIZEKO IZARRA antzezleri taldeak Azaroaren 7 eta 14ean, bein eta berriro antzeztu zuten erriko EDERRENA aretoan, Begiristain jaunaren iru ekitaldi dituen antzerki bikaina «APAIZ LANGILLE eta GIZON». Antzerki-jai eder au ikusi eta zeatz aztertu ondoren, ezin naiteke isil gelditu. Egiaz aitortuko badut, antzerki aldetik ikusi edanetik antzerkirik gorenetakoa; gaurkotasunez jantzia, mamitsu, sakon eta euskera mardul, goxo, eta erraz ulertzekoa.

Antzerkiaren muina: «Guraso arteko egoera tamalgarri batek, amasei urteko alabatxo droga artzaille bihurtzen du». «Langille eta nagusi arteko eztabaida»-k. «Apaiz gazte batek nai du arazo au erabaki».

Egileak bere lan eder ontan, egoki azaltzen dizkigu drogak berakin dakartzkian kalte ikaragarriak, eta droga gabeko oitura lasaia gure artean. Euskalerrian ere gailentzen doazkigula eta gertatze eder bat gai arturik, kristautasun bidetik eramaten gaitu. Baitare, argi ta garbi azaltzen digu apaiz-langillearen zintotasuna; erritarren marmarketak alde batera utzirik, eta egiñalak egin ondoren, droga madarikatuaren atzaparretan, zentzun, almen guztiak galtzeko zorian arkitzen zan neskatxa gaztea, bide zuzenera bihurtzen du. Bertan ikusten da kapitalistaren jokabide, nagusi eta langilleen arteko eztabaida, zenbait azpikeria, ta abar...

Antzezlarien aldetik. Guztiak ondo lan egin zuten, txalogarri benetan, bakoitzak beren eginbearrak zuzen beteaz. Ongi azaldu zuten antzerkiarako duten trebetasuna, bai ibiltze, egote, keiñu eta batez ere, bata-bestearen arteko etengabeko elkar-izketa bizian. Garbi ikusten da ongi ikasiak daudela eta erakusle ona dutela. Antzeztoki-apainketa eta argi-jokoak oso ederkiki moldatuak.

Ona emen antzezlarien banaketa: MADALEN; M.<sup>a</sup> Pilar Garagarza, KARLOS; Eusebio Azkue, ISABEL; Itziar Maiz, TOMAS; Fermin Osinalde, TONI; Pedro Osinalde, KOLDO; Jose M.<sup>a</sup> Osinalde, IDOYA; M.<sup>a</sup> Asun Oianguren, BIKARIO; Eugenio Urreiziti, ERRETORE; Boni Lekube, AMAYA; Andone Oianguren, EDURNE; Kontxita Txoperena, PRUDEN; Pedro M.<sup>a</sup> Urkiri, KLEMENTE; Jose Antonio Elezgarai, ANDONI; Juan Barrenetxea, NESKAMEA; Maite Illarramendi.

ZUZENDARI; Nerea Larrañaga, ERAKUSLE; Maritxu Andonegi, MARGOLARIAK; Andonegi aniak, ARGIJOKOA; Maximino Urreiziti.

Txalorik eta zorionik beroenak GOIZEKO IZARRA antzezlari taldeari; berdun zuzendari, erakusle, margolari, argi jartzaile eta beste laguntzaile guztiei.

ANDONEGI

## zeanuri

DANTZA TALDEA

Zeozar egin bear dala errian gazteentzat eta umeentzat, eta gazteen artean dantza talde bat sortzea egoki izango zala pentsatu zan. Irakasle bezala Irkus prestatu zan. Astero eukitzen doguz gure ekin aldiak zapatuetan bostetan, ordu bete inguruen. Zeurko Argiako orrietatik esker beroenak gure irakasle den Irkusi.

EUSKERAZKO ALFABETAZIOA

Baita be, lotsagarria dala, euskaldunak gure izkuntzan irakurten eta idazten ez jakitea, eta aurrerantzerako euskerazko ikastaroak eukingo doguz astero, zapatuetan, dantzaren ostean, Don Martin Orben ardurapean. Ia ba dantzari moduan jendeak ondo erantzuten deuston euskerazko ikastaroari.

ZEBERIOKO PELOTA TXAPELKETA

laketa Zeanuriri aurtun egoera berezian gogozan, ezin izan dogu beste urtetan moduan Zeanuriri esku pelotako txapelketak antolatu. Orduan Zeberioko gazteria eta euren artean Jose Mari Aizarna zeanuritarra baina Zeberion abade dauena, prestatu ziran antolatzeko Zeanuriko eta Zeberioko gazteentzat. Urriaren 29an amaitu zen txapelketa eta txapelidun irten dabe Zeanuriko Saltzedo eta Zeberioko Zabalak, baiña izerdi asko bota ostean ze Luis Mari Etxezarragak eta Teodoro Aranak (Zeanurikoak) pelotan asko jokatzan dabe. Onen txapelketan bitartez adiskide aundiak egin ditue zeanuritarrek Zeberion, eta uste dot onexek deukola garrantzi aundiena.

SABIN

**ECHABE**

ETXABEREN  
Mueble - Etxea

Fuero en Enperantza

Urrutzkifiek: 84 10 78  
84 11 24

**ZARAUTZ**

**FAGOR**

edaria  
epela dagola?  
**FAGOR** 'ek  
oztuko  
du bereala

# ELIZAREN BERRI

## Haurtxoak jaio berritan bataiatu bai ala ez?

Oraindik orain, Z. A. 505 zenbakian eta sail honetan bertan, aipatua dut arazo hau bera. Nere aipamen hura dela-eta, bai han aipaturiko inkestaren berri, bai haurtxoekiko bataioaren kristau-arazo osoari buruz, lantxo zabalago bat argitaratzeko eskatu didate.

Harria bota eta eskua ezkatzen dudarik inork esan ez dezan, hori da, beraz.

Lehenengo, teologia-artzantza aldetik arazoa nola dagoen adierazi dut; ondoren, lehenengo parte horren aplikazio bezala, aipaturiko inkestaren berri zabalagoa ipiniko dut. Lehenengo zatirako, Liège aitarekin artikulatu batez baliatuko naiz (Le Baptême des enfants, L. M.-D, 107 zenb. 7-28 or.); bigarreneko, berriz, Le Pèlerin aldizkariak (Sondage Sofres-Pèlerin). Jakina, kazetari-edo baten kritikoa nahieko fedez jaulkiko dut guztia.

### I.—SAKRAMENDUEN TEOLÓGIO BERRITZEN ARAZOA

Haurtxoen bataioaz asko hitzegin eta idatzi da aspaldion. Arazoa honetan datza: Elizaren irakaspenak ezezik, beraren iharduna ere egiazkoa eta benetakoa izan dadin bilatzea. Sakramendua fedearen sakramendua baldin bada, haurtxoaren bataioa zein federen sakramendu da? Hori da haunzia.

Hauzi horri buruz azken urteotan sortu den eztabaidaren iturri hurbilekotzat, K. Barth-ek 1943an emaniko ezezkua eman ditek.

Geroa, sakramendu-teologik ere bere bidea egin du; orobat, kristau-artzantza pentasibideak ere. Eta horrek guztiak bere bultzadaxka emana dio aipaturiko haunziari.

Teologiaren metodologiaren aldetik, zenbait baldintza kontuan hartu beharrezkoak dira; esaterako, arazo hori aztertzerakoan, Eliza bizi izan duen tradizioa kontuan hartu beharrezkoa da; orobat, kristau esperientziak gaur bizi dituen zer-nolakoak ere.

Horrez gero, ez da harriztekoa izanen, irizpide desberdinak agertzea. Eta agertu ere, hala agertu dira. Funtsean, elkarren osagarri izan ditezkeenak.

### HAURTZOEN BATAIATZEA TRADIZIOAN OINARRITUA

Haurtxoen bataioari buruz, Testamentu Berrian ezer gutxi aurki daiteke. Baina, lehenengo kristau belaunalditan, haurtxoak oldez bezala bataiatzen ziren. Hau bai: guraso kristauren haurtxoak bataiatzen ziren soilki; gainera, bataio hori egiteko, haurtxoaren bataioa fedez ospa zezakeen kristau elkarrean eskatzen zen. Bataio hori, gurasoek emaniko kristau heziketa bereziari loturik zihuan beti. Eta Jainkoak gizakiari salbazioingintzan aurrea hartu diola adierazi nahi zen.

Ez zen bataiatzen, ez beldurrez, ez jaiotza rito batez sagaratu beharrezkotzat jotzen zelako.

Haurtxoen bataioaren aurkako objektio handienetakoa, hauxe da: haurtxoa ez dela gauza harreman pertsonalik izateko. Honetan, halabaina, ez da haintzat hartzen Elizaren fedea. Honelatsu idatzen du Schillebeeckx-ek: haurtxoari, topo-egite pertsonal batetarako gauza izan ez da ere, amak ez dio ukatzen bere ardura eta maitasuna; haurrarekin jostatzen da; ihardun hori, amaren keinu bakoitza, zai-egote bat bezala da: erantzun baten zai egotea; haurtxoaren kontzientzia zabalduz doa, ez gauzatar, gizakietara baizik; lotan dagoen nortasuna keinuaren samurraren samurratz itzarriz doa; amaren gorputza maitasunaren adierazpena da. Hori da —dio— haurtxoak bataiatzearen oinarri antropologikoa: Elizak, Kristoren sakramendua, bataioaz Kristoren salbazio-nahia adierazten dio haurtxoari; keinu hori berezgaindiko nortasuna itzarriz itzarriz doa haurtxoaren.

### HAURTZOEN BATAIO-ERA EGIAZKOAGOA

Jakina, halabaina, ez da aski tradizioa jotzea haurtxoen bataioa justifikatzeko. Tradizio horren testioingurua aztertu behar da. Eta testioinguru hori erabat aldatu dela, dudarik ez. Gorago aipatu dugu zein kondiziotan bataiatzen zen lehen belaunaldietan. Geroa zer gertatu da? Zenbait aldatu aipa ditezke: a) bataioa "kristau gizartean" sartzeko bide bilakatu da. "On m'avait baptisé comme tant d'autres, pour préserver mon indépendance: en me refusant le baptême, on eut craint de violenter mon ame; catholique inscrit, j'étais normal: Plus tard, disait-on, il fera ce qu'il voudra!" (Sartre); hots, "beste hainbat bezala bataiatu ninduten, nere eskukotasuna gordetzearren: bataioa ninduten, nere eskukotasuna gordetzearren. bataioa ukatzea, nere arima bortxatzea izan zitekeela uste zuten; katoliko bezala apuntatuaz gero, pertsona normal nintzen: geroago —zioten— berak ikusiko du nora jo!"; b) Eliza, jende gehienaren bizi-molde bilakatu da, eta, jakina, sineste urriko; d) jatorrizko bekatua dela-ta, segurantz-bilaketa sortu da; e) kristau salbazioa giza-banakoaren arazo bilakatu da; f) sakramendua une batetako gauza bezala hartu izan da, eta fruitua berez bakarrik emanen balu bezala...

Egoera hori aldatzekotan, lan asko egin da, bai teologoen aldetik, bai Gotzai-batzarren aldetik (hala-nola Frantziakoak argitaratu emaniko ageria 1965-XII-6an). Lan horren xedea, hau izan da. kristau elkarre gertatzen diren egiazko iazera zuberazi, berari buruzko katekesia berritu, beren haurtxoaren bataioa eskatzen dutenei beren eskabidea nolokoa den ikusteko bidea eman, horretatik darrion konpromisoa ezagutarazi, Eliza egiazkiago salbazio-sakramendu bezala ager dadin saiatu...

Horrez gero, berrikuntza hori aurrera eramatekotan, eskatzen diren baldintza nagusiak hauek dira: haurtxoa kristau elkarreari lotuago ikusi eta hartu, kristau elkarre bataiatze-ospaketan parte har dezala, gurasoek gogotsuago eskuhar dezatela (Eliza elkarre ez bait da gauza abstraktu bat, baizik elkarre konkretuatz osatzen da, eta gurasoak izanen dira haurtxoari elkarre konkretuena adieraziko diotenak), bataioari gabe hiltzen diren haurtxoekiko kezka larriagiaz, "praktikante ez diren" gurasoen haurtxoek bataioa ukatzea gauza bakan ez baina normala bezala hartzea...

Azkenik, sakramendu eredutzat, haurtxoaren bataioa ez, baina heiduna litzakeena kontsideratzea.

### HAURTZOEN BATAIOA ATZERATZEA

Guztiak ez daude ordea konforme berrikuntza horrekin; bataioaren funtsa edo mamia ez dela salbatzen diote berrikuntza horrekin ere. Eta iritzi honetako, zenbait guraso ezezik, teologorik ere badago. Ematen dituzten arrazoi handienak, kultura aldetikoa dira: haurtxoak bataiatzea, nahiz Elizak betidanik egin izan, gaurko jendeak ez duela ulertzen. Arrazoi horren inguruan, beste asko dakarte.

Dena den, badirudi, errazegi baztertera botatzen dutela Elizaren tradizioa: ez da ageri, hain zuzen, gaurko kulturabidea nolaz ez ditelike integratu lehen proposaturiko bataio-era berritu horretan.

### BATAIOA MAILAKA

Beste proposapena, hau izan da. Bataioa jaio-berritan egin ordez, mailaka mailaka egin beharko litzakeela. Izena ematek hasi, eta haurtxoa berez konprometitu ditekenean adinean bataioa egin arte. Lehenbizi, beraz, kristau-heziketa egin beharko litzake. Hori, ez litzake bataioa atzeratzea izanen, pausoka pausoka ematea baizik.

Baina, hemen ere, galdera hau da: bide-egite hori ez ahal da proposatzen lehendabiziko proposapenaren ere, hots, bataio-berritua delakoan? Honetan ere, bataioa ez da bukatzen haurtxoari ura ematearekin; baizik, ondorengo bizieta bat, ondorengo heziketa bat, Elizan bizieta bat eskatzen zaio.

### BUKATZEKO

Hiru bide ageri dira haurtxoek buruzko bataio kontuan:

a) pastoral oso batetan burutu-

riko tradiziozko bataioa;

b) bataioa atzeratua;

d) bataioa mailaka.

Hirurek, premia batzuk azpimarratzen dituzte: bataioari buruzko zentzua berritzea; kristau helduen elkarre bati itsatsiriko haurtxoen kristau-heziketa ardura; sakramendua puntu bat bezala ez, baina prozesu bat bezala hartzea; Jainkoaren aldetiko eskaintza eta norberaren konpromisoa ez etetea; haurtxoaren bataioa, gauza normala bezala ez, baina bakana bezala hartzea; gizalditan zehar gertaturiko kultura aldaketek buruz arduratzea...

Osasun seinala izanen litzake, Elizan helduen bataioak ugaltzea; baina, ez da ageri, sistimikoro haurtxoaren bataioa utzi beharrezko denik.

### BATAIOA

— Elizaren altzoan sartu ahal izateko sakramendua da ... ..	% 51	% 12
— Jatorrizko bekatua kentzeko ... ..	% 9	% 20
— Kristauren itzaropenaren adierazpen ... ..	% 8	% 5
— Zeremonia soil bat da ... ..	% 8	% 5
— Aitabitxia eta amabitxia emateko aukera ... ..	% 10	% 13
— Jaiotza ospatzeko era bat da ... ..	% 7	% 13
— Haurtxoa tarterikoei eta adiskideei aurkezteko aukera da ... ..	% 1	% 4
— Iritziarik gabe ... ..	% 8	% 13

Zer da bataioa, beraz, frantsezen iritzi? Bakoitzari, inkestan jartzen ziren ikusmoldeetatik bat aukeratzeko eskatzen zitzaion. Ondoren, beste bat ere seinaltatu behar zuen. % 63-erentzat Elizan sartzeko bide bat da. Hau da: gure gizartean sartzeko modu bat, in-

— Gure familian beti egin da ... ..	% 36
— Jesukristorengan sinesten dut ... ..	% 43
— Geroago Elizan ezkon ahal dadin ... ..	% 26
— Haurtxoek Jainkoak bere grazia eman nahi dielako ... ..	% 15
— Haurtxo baten jaiotza garrantziakoa gertaera delako ... ..	% 18
— Zer gertatuko ere; badaezpada ... ..	% 11
— Iritziarik gabe ... ..	% 9

Lehen mailan, Jesukristorengana sinestea dator; baina, zer da sineste horren muina?

Beste galdera batzuk ere egiten ziren. Bataiatu nahi ezean, zergatik? Eta gehienek erantzun hau aukeratu zuten: haurtxoaren askatasuna errespetatzeko. Hemen ere ikusi beharko litzake zer hartzen duen askatasun horretaz. Askata-

— Ni edo nere ezkontidea katoliko ez garelako ... ..	% 3
— Sinesten ez dudalako ... ..	% 6
— Haurtxoaren askatasuna errespetatzearen ... ..	% 7
— Nere haurtxoa Elizaren agintear ez menderatzearen ... ..	% 2
— Familian behin ere egin ez delako ... ..	% 1
— Jainkoak, bataiatuak bezala, bataiatu gabeak ere maitatu dituelako ... ..	% 2
— Bataioa gauza handiegia delako txikitzen egiteko ... ..	% 3
— Elizaren gaurko egoerarekin konfome ez nagoelako, eta bultzada bat emateko bide bezala hartzen dudalako ... ..	% 1
— Ez dakit ... ..	% 13
— Ez daude kasu horretan; guztien gain haurtxoa bataiatu eginen luketelako ... ..	% 70

### BATAIOA UKATZEKO ESKUBIDEA

— Haurtxoaren anai-arreba zaharragoak dotrinara ez doazenean ... ..	% 3	% 88	% 8
— Gurasoak bataiatuak ez direnean ... ..	% 6	% 84	% 11
— Gurasoek federik ez dutenean ... ..	% 11	% 74	% 15
— Gurasoek kristau-heziketa emateko asmorik ez dutenean ... ..	% 16	% 69	% 15
— Haurtxoaren aita edo ama dibortziatuta denean ... ..	% 3	% 85	% 11
— Gurasoek bataio aurreko gertuketara joan nahi ez dutenean ... ..	% 11	% 71	% 18

Gehienek ez diote ezagutzen eskubiderik apaizari bataioa ukatzeko. Bgien bistako gauza da hori, bataioari halako baiezkua eman diotenez gero. Bataioa zor zaion gauza bat du frantsesak. Senide zaharragoak dotrinara ez joatea ere ez da arrazoi garbia nonbait. Gurasoek kristau heziketa emateko asmorik ez dutenean ere, ukatzeko eskubidea dutenen ehunekoa

— Bataioak taldeka egin, hots familia asko batera bilduz ... ..	% 45	% 39	% 15
— Zeremonian toki nagusia gurasoek eman, eta ez aitaema bitxiel ... ..	% 38	% 39	% 23
— Gurasoek zeremoniarako gertutzeko eskatzea, apaizekin harremanean sartuaz ... ..	% 41	% 36	% 22

Gakoa, ordea, hor dago: nola egin haurtxoaren bataioarekiko artzantzabide oso hori gaurko Eliza giroan?

Gure artean, bederen, ez da zartarren handirik ageri alderdi horretatik; erabat harturik, esan ditek, ia "kulto" hutsezko eliza bihurtu den gure egoera honetan, berrikuntza guztia hauxe izan dela: lehen bataioa bakana eta zenbait tarterikoren aurrean egiten bazen, orain elkarrean egiten hasi gara. Baina, bataio berrikuntza hori bakarrik baldin bada, zerbait aurreratu dugu, halajaina!

### II.—BATAIO BERRIKUNTZA-REN ONDORIOAK AZKEN URTEOTAN FRANTZIAN

SOFRES soziologia-elkarteak, Le Pèlerin-en eskabidez, inkesta bat egin du. 2.000 frantsez ikertu dira (ikus, Z. A. 50 zenb., Elizaren Berri sailean).

### ZER DA BATAIOA?

Hona bataioaz izan ditezkeen zenbait ikusmolde. Zeini irizten duzu egokien?

	lehenengo mailan	bigarren mailan
— Haurtxoaren bataioa ... ..	% 51	% 12
— Jatorrizko bekatua kentzeko ... ..	% 9	% 20
— Kristauren itzaropenaren adierazpen ... ..	% 8	% 5
— Zeremonia soil bat da ... ..	% 8	% 5
— Aitabitxia eta amabitxia emateko aukera ... ..	% 10	% 13
— Jaiotza ospatzeko era bat da ... ..	% 7	% 13
— Haurtxoa tarterikoei eta adiskideei aurkezteko aukera da ... ..	% 1	% 4
— Iritziarik gabe ... ..	% 8	% 13

tegraziobide bat da. Gainerako ikusmoldeak urrituz doaz.

### BATAIOAREN ALDE

Hona zenbait arrazoi haurtxoa bataiatzeko. Zeurea bataiatu behar bazendu, zein arrazoiengatik eginen zenduke?

— Gure familian beti egin da ... ..	% 36
— Jesukristorengan sinesten dut ... ..	% 43
— Geroago Elizan ezkon ahal dadin ... ..	% 26
— Haurtxoek Jainkoak bere grazia eman nahi dielako ... ..	% 15
— Haurtxo baten jaiotza garrantziakoa gertaera delako ... ..	% 18
— Zer gertatuko ere; badaezpada ... ..	% 11
— Iritziarik gabe ... ..	% 9

suna errespetatzea zer da, askatasunean bizitzen jakiteko hiziteza baizik?

### BATAIOAREN AURKA

Hona haurtxoak bataiatzen ez dituztenek ematen dituzten zenbait arrazoi. Zu kasu horretan bazauda, zein arrazoiengatik da?

— Ni edo nere ezkontidea katoliko ez garelako ... ..	% 3
— Sinesten ez dudalako ... ..	% 6
— Haurtxoaren askatasuna errespetatzearen ... ..	% 7
— Nere haurtxoa Elizaren agintear ez menderatzearen ... ..	% 2
— Familian behin ere egin ez delako ... ..	% 1
— Jainkoak, bataiatuak bezala, bataiatu gabeak ere maitatu dituelako ... ..	% 2
— Bataioa gauza handiegia delako txikitzen egiteko ... ..	% 3
— Elizaren gaurko egoerarekin konfome ez nagoelako, eta bultzada bat emateko bide bezala hartzen dudalako ... ..	% 1
— Ez dakit ... ..	% 13
— Ez daude kasu horretan; guztien gain haurtxoa bataiatu eginen luketelako ... ..	% 70

### BATAIOA UKATZEKO ESKUBIDEA

	zure iritzi, apaizak ba ahal du eskubiderik bataioa ukatzeko?
	bai ez ez daki
— Haurtxoaren anai-arreba zaharragoak dotrinara ez doazenean ... ..	% 3 % 88 % 8
— Gurasoak bataiatuak ez direnean ... ..	% 6 % 84 % 11
— Gurasoek federik ez dutenean ... ..	% 11 % 74 % 15
— Gurasoek kristau-heziketa emateko asmorik ez dutenean ... ..	% 16 % 69 % 15
— Haurtxoaren aita edo ama dibortziatuta denean ... ..	% 3 % 85 % 11
— Gurasoek bataio aurreko gertuketara joan nahi ez dutenean ... ..	% 11 % 71 % 18

oso bajua da. Orobat, gurasoek federik ez dutenean ere.

Praktikante ez direnek ezagutzen diote eskubide hori apaizari gutxiarik.

### BATAIO-ZEREMONIAREN EBOLUZIOA

Hona zenbait bide bataio-zeremonia aurrerabidean ipintzeko. Aldekoala aurkako izanen zinake?

	aldeko aurkako	ez daki
— Bataioak taldeka egin, hots familia asko batera bilduz ... ..	% 45	% 39
— Zeremonian toki nagusia gurasoek eman, eta ez aitaema bitxiel ... ..	% 38	% 39
— Gurasoek zeremoniarako gertutzeko eskatzea, apaizekin harremanean sartuaz ... ..	% 41	% 36

Joera nagusi bat ez da ageri. Halere, bataioak taldeka egiteari buruz, % 45 alde, eta % 39 aurka. Nekazariak dira gehien alde dardenenak; gorenko kuadroak, lanbide liberalak eta industrialak ostera.

Gertuketarako, % 41 alde. Hemen, gehien, lanbide liberakalekoak, industrialak eta gorenko kuadroak dira; nonbait, bileran hantean aisago dabilta beste kulto-batzar masifikatutan baino.

### BATAIATZEKO ASMOA

Laster familia izateko bazeunde, bataiatuko ahal zenduke?

BAI ... ..	% 88
EZ ... ..	% 9
EZ DAKI ... ..	% 3

Emakumeak aldekoago dira: emakumeak % 91, gizonezkoak % 84. Eta jaio-berritan eginen litzake. % 5-ek haurtxoa hazten denerako utziko luke.

Dena den, seinale batzuk ageri dira bataiatzeko joera behar izanen ari delakoarena. Izan ere, bataiatzeko asmoa adinaren arabera aldatu egiten da (ikus, Z. A. 50 zenb. sail honetan bertan).

### BATAIOA ZEIN ADINETAN?

— Jaio ondorengo lehen hiletan ... ..	% 80
— 2-3 urtetan ... ..	% 2
— Dotrina garaian, 7-10 urtetan ... ..	% 1
— Beranduago, noberaren borondatez ... ..	% 5
— Ez luke bataiatuko ... ..	% 9
— Ez daki oraino ... ..	% 3

### III.—BATAIO-ARTZANTZAKO ARDURADUN BATZUREN IRITZIA

Zenbakiak utzirik, inkesta horretan atera den zenbait puntutat, lanbide horretan diharduen hirukote baten iritzia aldatu dut hona. Le Pèlerin aldizkariak bildu duena. Labur ematen dut, mamitsuena eman ustez.

a) Inkesta horrek joera bat adierazten du, eta ez planto eginko egoera bat. Bataio berrikuntzarako eginko aldatetok kristauren mentalitatea zerbait aldatu dutela adierazten du inkestak.

Bataioa gutxitzea doalako joera ere nabari da. zaharren aldekoenak, gazteenak aurkakoena.

b) Harrigarri samarra, % 50-eko bataio aurreko bileren aldeko ageri delakoa da. Bileretan ez bait da ageri proportzio hori. Dena den, ideia hori uste baino aisago sartu da. Eta hori zenbait parroikia nagirtzat frogatzen da: jendea gustora joaten da bilera horietara; guztia bilera nola zuzentzen den dago; aipaturiko arduradunek behin bakarrik izan zuten zailtasunik alderdi horretatik; guztia, aurreko bileran apaizak bakarrik hitzegin zuelako izan zen; gurasoak, erabat harturik, gustora joaten dira bileretara.

d) Bilera horiek ze itrenbide? Abiaturia ona dute; problema, nola jarraitu izaten da; guraso askok jarraitu nahiko bait luke fede-bilaketan. Bilera horietan, beste batzarretan ez bezalako eliza-experientzia bizitzen da; liturgiakoetan ez bezalako, bestelakoetan ez bezalako.

Mentalitatea aldarazteko bide egoki gertatzen dira; hori, gurasoek bigarren, hirugarren haurtxoa izan eta bileretara berriro etortzean ikusten da.

Bigarren eta hirugarren txandako horietan, experientzia berria bizitzen dute, bigarren haurtxoa izatea ere berria bait da. Experientzia berri hori sortaraztean dago bileraren gakoa; bilera nondik nora zuzendu? Dotrina-adierazpen batetik abiatuaz gero, zaila izanen zenduke; behar dena, bigarren haurtxoa izatean izan duen experientzia berriatik hastera da. Hori ez da bat-batetan inprobisatzen.

e) Bataioa atzeratu ala ez? Problema ez da horrela sortzen. Baizik, bilera askatasun osoz hitzeginaz eta bataioa zer den aztertuz, kristau epel den guraso batetik haurtxo izanen du atzeratzea, haurrak geroago bere borondatez aukera dezan; bere burua ez bait du ikusten gauza, konpromisoa aurrera eramateko.

# KIROLAREN BI AURPEGI

## Gaurko gizartearen gertaera berezia

Garrantzi handia du kirolak gizonaren bizitzan. Gizarterako joera eta lagunarterako sena gehitzen ditu. Iraupena, zailmena, kemena, lana eta bere burua zaintzea eskatzen dizkio irabazle geratu nahi duenari. Dirua eta droga ditu etsairik txarrenak. Zenbait agintarik herria loarrazteko erabili ohi du. Bi aurpegi ditu kirolak: ona eta txarra.

### KIBOLZALETASUNA

"Gaurko gizartearen gertaera berezia" deitu zion kirolari Pio XII-nak. Alor hontan gertatu da aldaketarik nabarmenetakoa. Estanda egin duen gertaera izan da. Ez dira hortarako laguntzaile makalak, egunkariak, irratia eta telebista Geure gurasok baiño eskulan gutxiago egiten dugu gehienok, noski. Baiña zalantzarik gabe kirol-jolas gehiago. Era guztietako jokoak ezagutzen eta probatzen dira. Emakumezkoa bera ere ez da bat ere atzera gelditzen ari. Denak ez dira emakumearentzat egokiak, baiña bai asko. Dudetatik ederki atera gintuen Mexikoko Olimpia-jokoetan Caslawaska neskato lirain eta ederrak. Urrezko bost medailen jabe egin zen. Are garbiago, Munich-koetan ikusi dugu.

Hori bai, Euskaldunok geure geureak ditugunetan gehiago saiatu behar genduke: balankariak direla, pelotariak direla, harri-jasotzeak direla... Hor dago hiltzearen bost bosten aurka, jokatu ohi den errebotepelota-jokoa. Mugaz bestaldean oraindik bizirik diran, baiña Gipuzkoan, esate baterako, Bilabonan eta Zubietan bakarrik ezagutzen da. Indartu behar litzake joko zoragarri hau. Ez genioke gaitzen utzi behar esku-larruz jokatu ohi denari ere. Oraindik Baztan aldean jokatu ohi da. Gipuzkoan bertan ere ezagutzen ditugu hortarako diren plazak beren saka-harri eta guzti: Aizarnakoa, esate baterako.

Eskola umekin, egiten den baiño lan gehiago egin behar litzake. Jean Maynaud, soziologiar fran-Badira pelota-txapelketak eratzen dituzten ikastetxeak, baiña gutxi. Ikastolek berek ere zer erraztasun daukate hortarako? Oso urri aurkitzen dira jolaslekuz. Eta ikas-herri asko ere oso urri aurkitzen dira jolaslekuz. Eskerrak mendia eta itsasoa hurbil dauzkagun.

Halaz guziz ere hauxe esan dezakegu Aldoux Huxley-kin batera: "Kirola da gaurengun asmakizunik haundiena".

### HEZI-INDARRA

Milla alderdi on du kirolak. Indar haundia du umearen hezieran. Gorputza behar bezala hazteko, lutzeko, zabaltzeko eta sendotzeko duen indarra ez dago zalantzan jartzerik. Baiña ez du hau alderdirik garrantzitsuena. Umea zaildu, lagunarteratu eta bere buruaz jabe egin arazten du kirolak. Gero eta gehiago izateko mentua txertatzen dio kirolak umeari. Eta umeentzat diogunak balio du haundientzat ere. Gizarterako joera eta lagunarterako sena gehitzen dizkio gizonari.

Batez ere taldean jokatzeko direnek elkarren arteko lanera eragiten diote. Hor ez dago nor bere dohaiak azaltzen ibiltzerik. Bakarika ez da ezer egiten: bat bederak bere burua lehertu, besteak nazkatu eta jokoa galdu. Hor ikusten da bestearen beharra zeinen pre-miazkoa den.

Haundiak dira kirolaren alderdi onak, Paul Avy-k dionez alderdi hauk denak ateratzen dira:

% 74	gehitzen du lanerako poza
% 62	ekintzarako burubidea
% 60	gehiago izateko ustea
% 58	gorputz-indarerrako egokitasuna
% 41	nahimenaren indarra eta iraupena
% 25	neurri-sena
% 20	buruko zorrotasuna

Nork ez dio emango kirolari zor zaien arreta? Nork baztertuko du alderdi on hauk dituen kirola?

### ALDERDI TXARRAK

Badu kirolak aurpegi iluna ere, aurpegi itsusia. Bestea bezain

egiazkoa, zoritxarrez. Ez dezakegu ahaztu eta isil. Droga eta dirua dituztu alderdi txar hauk.

Benetan eskasa drogaren indarbila abiatzea txapeldun ateratzeko. Galdu da bide hortatik abiatzen dena. Ez du luzaroan iraungo. Ez du sari haundirik aterako. Ondatu du osasuna eta agian galdu du bizia ere.

Debekatuta dago kirol-legeetan. Zerbait esan dezakete Munich-ko Olimpia-jokoetan irabazitako medaila itzuli beharrean aurkitu diren Rick Demont eta Jaime Huelamo-k.

Zenbat galdu den aurrea ateratzeko edo diru piska bat irabazteko? Zenbat txirindulari edo bozeolari hil den drogara jotutako? Egun bateko bizia eta ederra izan duen loretxo ahul gertatu dira.


Kiroltasunaren aurka dago ezin eta gehiago droga. Zailmenaren, iraupenaren eta kemenaren aurka dago droga.

### DIRUA

Dirua da kiroltasunaren etsarik gaiztoena. Ez da haundia gure artean drogaren arriskua. Bai, ordea, diruarena. Tokitan gaude erramu-xorta xixtrin batengatik egiahalak jotzen zituzten kirolari haiengandik! Ez zuten beste ametsik eta ohorerik. Baiña zori-neko diruzalekeriak gaitzak jo du kirol alderdia ere.

2.100 milloi pezeta bildu ziran, 1971garrengo martxoaren 9an, Frazier eta Cassius Clay-k boze-txapelketa jokatu zutenean. Clay-n aurka jokatzeko prest dagoela esan du Frazier-ek 180 milloi ematen bazaizkio.

Pilla txikixagoan baiña zenbat diru dabillen euskal-jokoaren artean! Diru gaitzak jota daude euskal-joko gehienak. Diru-miñak jota dagoenarekin ez dago ezer onik egiterik. Dirua da kirola eta kirolaria desegiten dituen. Eta gaitz hau zabaltzen ez dira txarrak ki-



Euskaldunok geure geureak ditugun kiroletan gehiago saiatu behar genduke.

rolarien inguruko akolito eta erahori ikusteko neurri txarra: kustailleak. Kinielak ere ez dira 10.043.339825 pezeta bildu ziren igaz.

### LO-BELAR

Sartu zaio kirolari hirugarren gaitza ere. Baiña gaitz honek jokalekuan jokatzeko ari denari baiña gehiago, begira dagoanari eraso dio. Jendea loharrazteko hau bezalakorik ez dago. Arrazoi zuen Leon Blay-k: "kirola da jende buru-motza sortzeko erarik aukerakoena", zionean. Kirolak lozortutako eta geldotutako jendea daukagu Jakiña, zenbait lekutan agintariek bere herriari ematen dioten lo-belarra da. tsesak dionez, kirolak alde aurretik gobernuak izendatutako helburtolak ez ezik beste ikastetxe eta ruak betetzen ditu: jendearen begiak lausotu eta egiazko arazoak axolabatu. Jendea mozor arazi eta penak ahaztu arazi.

Hortan mutilla izan dugu euskaldunok Urtain. Ez hainbesterainokoa, noski, mutur-jokarako. Zenbat jenderen begi saihets arazi duen egiazko buruhasteetatik! Philippe Rethacker idazleak idatzia da: "Gosea baiño indartsuago dira Brasil-en Santos eta Botafogo". "Zer nahi duzu, bada, zion brasildar batek, ez dugu egunero jateko arrozik eta babarrunik, baiña hoi en orde Pele eta Garrincha dauzkagu igandero. Hoi aski ditugu zorionekoak izateko".

Gaitz hau gero eta indar haundia zabaltzen ari da munduan. Eta hontan ez dute errurik txikiena gaurregun egunkari, irratia eta telebistek.

Egiazko kirolak askatzaille izan behar du, baiña zoritxarrez ez da hala. Jendea esnatze lanari gogoz heldu beharra dago. Bestela gizonaren etsairik haundienetako bat bihur diteke.

LAPATX



Eskola umekin, egiten den baiño lan gehiago egin behar litzake.

